



ARGIA



DONAPALEUKO AKTAK 500 URTE
***Nafarroako erresumak
bizirik iraun zuen***

28-31. orrialdeak

#2837 | 2023/09/10 | 4,00 €



***Nola neurtzen dugu
segurtasuna?***

23 | POLIZIA




***“Irteera bakarra
korporazioen trantsizio
energetikoa al da?”***

32 | MARI PAZ AEDO



***“Nire dezepzio
bakoitzak itxaropen
bat izan du”***

42 | XABIER AMURIZA



ELI PAGOLA, MAITANE GARTZIANDIA ETA MIREN ARTETXE

Liburu aurkezpenak
Kulturarteko Plaza Feminista
Hernani. Irailak 28, 18:00

LABA
Iruñea. Urriak 5, 19:00

AUTO BIDAIAK BERTSO SAIOETARA BIDEAN.
ZORIZKO ALIANTZAK ETA ADISKIDETASUNAK.
OHOLTZAPEKOAK. OHOLTZA GAINEKOAK.
BOTERE HARTZEAK, GARAGARDOAK ETA KONPRESAK.
EMAKUMEOK JENDAURRERA JAUZI EGITEAN
BIZI DITUGUN POZAK, ALEGIA.

Komiki berria

140 orrialde koloretan

Prezioa **24 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ILUSTRAZIOA: **XABIER SAGASTA**

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | ANDREA BARTOLO
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | MATI ITURRALDE

Finkoak

- 37 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
NAHIA ALKORTA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


42 | **XABIER AMURIZA**

Bizitzaz, zahartzaroaz eta haurtzaroaz, heriotzaz... mintzatu zaio Xabier Amuriza Kepa Matxaini, izan duten patxadazko elkarrizketan. Bertsoen bukaerak bezain landuak diren esaldi biribilik aurkituko du irakurleak.

DANI BLANCO

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Muturreko eguraldiak ez dira gai haiek bakarrik kontzientziak pizteko

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | HELENA BARRENETXEA

“Jendeak frontoian zesta puntan neska giroa ere ikustea nahi nuke, ez bakarrik mutil giroa”

Miel A. Elustondo

23 | GIZARTEA

Segurtasun arazoak Euskal Herrian?

Mikel Eizagirre

28 | HISTORIA

500 urte Nafarroako Estatu Nagusiak Donapaulen deitu zirela

Urko Apaolaza

32 | INGURUMENA | MARI PAZ AEDO

“Txiletarrok gara mundu osoaren elektrifikazioa ordainduko dugunak”

Estitxu Eizagirre

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Aitor Gurrutxaga, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Ilargi Manzanares, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Lander Arbelaiz,
Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartziandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012

ISSN
0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Egarriak?

"Duela pare bat urte itsasontziz egin zenezakeen bidea. Orain erabat lehorturik dago". Esaldi honek munduko txoko askotarako balio lezake. Horietako adibide esanguratsu batzuk Herrialde Katalanetan eta Frantziako Estatuan ikus ditzakegu. Irudikoa, Aglí ibaia da Ipar Kataluniako Claira herritik pasatzean. Klima aldaketaren aurkako ANV-COP21 taldearen ekintza da: "Urik gabe geratu dira? Petrolio edan dezatela!", TotalEnergies multinazional frantziarraren logoak lagunduta. Ekologistek salatu dutenez, klima aldaketa neurri batean multinazional horiek eragindakoa da, ibaien egoera larria barne. Beraz, enpresa erraldoi horiek ordaindu beharko lukete, "sortu duten arazoaren ondorioak" konpontzeko.

 JC MILHET  AXIER LOPEZ



**ILS N'ONT PLUS
D'EAU? QU'ILS
BOIVENT DU
PÉTROLE!**

Adin txikikoei sexu gehiegikeriak egin zizkien Juan Kruz Mendizabal apaiz laguntzaile izendatu dute

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Juan Kruz Mendizabal "Kakux" elizgizona Beasaingo elizako apaiz laguntzaile izendatu du Pedro Ayuso Donostiako gotzainak. Mendizabal Gipuzkoako bikario nagusi izan zen eta udalekuetan sexu gehiegikeriak egin zizkien hainbat adin txikikori, haiekin zuen konfiantza baliaturik.

Uztaila bukaerakoa da izendapena, baina nahiko oharkabean joan da.

Duela urte batzuk, hainbat gizonen jarritako salaketek azaleratu zuten 2001 eta 2005 urteen artean gertaturikoa: eskauten Elizaren ordezkari gisa 13 eta 16 urte bitarteko neska-mutilen kanpalekuetan parte hartzen zuen Mendizabalek, eta sexu gehiegikeriak egin zizkion hainbati. Biktimetako batek *Berrian* kontatu zuenez, lo zegoela zakila eta barrabilak ukitu zizkion elizgizonak, beste eskuarekin bere burua masturbatzen zuen bitartean; mutikoak kontatu zuenean, Mendizabalek ukatu egin zuen eta mutikoak amesgaiztoa izan zuela adierazi zuen.

Gerora, baina, salaketen harira Elizak abiatutako prozesuan, sexu

Sexu gehiegikeriak aitortu egin zituen Juan Kruz Mendizabalek; monasterio batera bidali zuen Elizak

gehiegikeriak onartu egin zituen Juan Kruz Mendizabalek: monasterio batera bidali zuen Elizak eta debekatu egin zion publikoki apaiz aritzea, baita adin txikikoekin egotea inguruan heldurik ez bazegoen.

Dirudienez, Goierri aldean hainbat meza eman ditu azken urteetan. Orain, esan bezala, Beasainen aritzeko izendapena jaso du.

"INPUNITATEAREN AURKA"

Albisteak oihartzuna lortu ahala, gaitzespen erreakzioak azaleratu dira batetik eta bestetik. Goierriko Itaiak deituta, adibidez, elizgizonen eta Elizaren "inpunitatearen aurka" mobilizatu ziren irailaren 2an, Beasaingo Bideluze plazan. ●



EITB

Txileko estatu kolpearen inguruko dokumentuak, desklasifikatuta

ILARGI MANZANARES

1973ko estatu kolpea gertatu baino lehen, Nixonen garaiko AEBetako presidentek jasotako dokumentuak argitaratu ditu Washingtonek, Alexandria Ocasio-Cortez AEBetako Ordezkarien Etxeko kideak Txileri egindako bisitaren ondoren.

AEBetako Estatu Sailak Txileko estatu kolpea baino lehen Nixonek jasotako bi txosten desklasifikatu ditu, demokratek presioaren ondorioz. 1973ko irailaren 8ko eta 11ko dokumentuak dira, Salvador Allende presidentea bota zuen estatu kolpea gertatu aurrekoak.

Txostenetan, hainbat nazioaren egoeraren inguruan jakinarazten zaio Nixon, tartean Txile. Txileko Armadaren mugimenduak jasotzen dira, baita Unidad Popular osatzen zuten taldeen erresistentzia eta estatu kolpe militar baten aukerari buruzkoak ere.

Irailaren 8ko txostenean azaltzen da "kolpe militarra gertatu daitekeela", Txileko marinak hauspotuta. Marinak armadaren eta aireko indarren babesa eskatzen zuen, baina hiru zerbitzuen arteko kolperik ez zen antolatuta. Marinako ofizialak eskuineko talde paramilitarrek lan egiten ari diren aztarnak badaudela ere esaten da. Txostenean, Allendek dio "irtenbide bakarra politikoa" dela.

Irailaren 11ko txostenean, bestalde, itsas armadak estatu kolpea egiteko planaren inguruan ari da, armadaren eta aireko indarren babesarekin, oraingoan. Halaber, zera aipatzen da: "Sozialistek, komunistek eta muturreko ezkerrekoek ez dute atzera egingo".

Nixonek eta CIAk babestutako estatu kolpea azkeneko txostenaren egunean gauzatu zen. Allendek bere buruaz beste egin zuen eta Pinochet diktadura ezarri zen, 1990 arte. Diktaduran, CIAk onartu duen moduan, "giza eskubideen aurkako eraso sistematikoak" izan ziren. Pinochet 1998an atxilotu zuten, baina epaitu baino lehenago hil zen, 2006an. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

Hurrengo udara arte




UXUE APAOLAZA LARREA

Batzuek ez zenioten egiteari utziko, eta beste batzuek ez duzue itzultzeko lanik izango. Beste batzuk tik-tak bat entzuten ari gara (dagoeneko ordulariek egiten ez dutena), bihotzaren dun-dunetik bereizten gero eta zailagoa, lasterketa ero baten irteeran bageunde bezala. Eta badira “errutinara itzultzeko gogoz” jaiki direnak ere (familiarik gabeko laneko errutinara, oporrak ere nahiko beti bezalakoak izan baitituzte). Badator, eduki edo ez, lanak definituko digun egunerokoa.

“Zer moduz?” galderari pausoa azkartuz erantzungo diogu tetriza ez desmuntatzeko. Bada okerragorik, presa edukitzeak egiteko zerbait esan nahi baitu, eta presaren larritasunetik ez dugu ikusiko presarik ez daukanaren itolarria (pausoari zer abiadura eman ere beren kabuz erabaki behar dutenena). “Zertan zabilta?”-k, adin batetik aurrera, “zer lortu duzu zure bizitzan?” izango dira, eta lorpenaren muntak (“bere bizitzarekin zerbait gehiago egingo zuela espero genuen, ez?”, “hainbeste ikasi horrela ibiltzeko”, “hobe Lanbide Heziketa egin balu”, “txori asko buruan”) zerikusia izango du entregatu dugun bizitza puskak, egindako isiltasun botoak etxea ez konpartitzeko adina ematearekin, autoa edo, hobe, furgu bat edukitzeko ematearekin, asteburuetan libre eta (“jarriko dugu botea”, “ez, ez hau nire kontu”) proposatuko dituzten planek beldurrik ez ematearekin, okasio bakoitzerako arroparen bat edukitzearekin (eta beti edozein okasiotarako jantzita egon ahal izatearekin)...

Eta ez gaituzte gure erabakiek definituko, ezta herrialde baten beharrek ere. Definituko gaitu lau enpresaren hazkunde nahiak (herrialdea bezala), definituko gaitu hazkunde horrek langileari sinetsarazi dion duintasunak, definituko gaitu inoiz amestu ez genuenak. “Presaka” ez da “nik bizitza bat daukat”, da “ez naiz gogoratzen bizitza noiz entregatu nuen, heriotzari ez begiratu behar izateko, eta gero eta beldur handiago ematen dit begiratzeak”. Hurrengo udarara arte. ●

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Osasuna

Buruko gaixotasunagatik 30 urtez beherakoen ospitaleratzeek %40 egin dute gora EAEn. Euskal Herriko Unibertsitateko hainbat ikerlarik plazaratu dute *Incidence of mental disorders in the general population aged 1–30 years* ikerketa.

Hizkuntzak

Andorrako katalanaren defentsarako lege berriak katalanaren oinarritzko maila eskatuko du bertan bizi eta lan egin ahal izateko. A2 titulua baino maila baxuagoa eskatuko dute eta Andorrako presidentek adierazi du legea hurrengo urtean sartuko dela indarrean.

Politika

Graxi Etxebehere militante abertzalea zendu da. 72 urte zituela, minbiziak eraman du. Sutsuki ezkertiarra eta abertzalea, bizileku zuen Ortzaize herriaren bizi kultural eta politikotik nazio askapenaren aldeko borrokara, hainbat borroketan inplikatu zen.

Bero



ULA IRURETAGOIENA

Komunikabideetan behin eta berriz entzun dugu udaldirik beroena igaro dugula eta Euskal Herritik hegoalderako lurretan egon direnen artean ere bai, a ze bero! Iazko lehorte eta bero itogarria ez da aurten errepikatu gurean, gure landa eta basoak gusturago hartuko dute ikasturte hasiera. Baina planetaren tenperatura igoera, nabarmenagoa izan edo ez, larriagoa izan edo ez, gertatzen ari da. Beste eztabaida bat da, ea zerk eragiten duen planetaren berotzea eta nola eragin edo egokitu klimatologia berrira.

Maila domestikoan, klimatologiaren berritasunak presentzia hartzen ari dira. Berriki, etxeen zaharberritzeetan askoren kezka igarri dugu: gure etxeetan aire girotua edo haizagailu finkoen instalazio beharrik sekula bizi izan ez dugun arren, gaualdi itogarrien esperientzia-gorpuztu eta errepikatuek, gehi iragarpen kritikoez, auzitan jartzen dute etxeen tradizioa. Bartzelonako etxe zaharberritzeetan ez dago aire giroturik gabeko planteamendurik, ez dago kuestionamendurik, ur beroa edo berogailuaren behar-maila berdinean kokaturik dago. Baina gurean berritasun itzela da. Eskuko-haizagailuen salmenta altua omen da, aldizkakotasunaren seinale; baina etxea hozteko beharrak instalazio maila hartzen badu, egoera aldaketa baten zantzu argia izango da. Etxeen instalazioak beti gelditzen dira zaharkituak denborarekin, izan teknologia berriztapenagatik edota instalazioen segurtasun maila zorrotzagoak eskatuta. Nola eragintzen duen klimatologiak etxeen arkitekturan, ez du erantzun arkitektonikorik.

Hirietan klimatologiak dagoeneko bere aztarna utzi du: klima-babeseko espazioen sorrera. Hainbat hiriburuetan liburutegi edo kultur-etxe klima-babeserako espaziotzat hartu dira, beroaldietan babesguneak izateko. Hara kulturak ekarriko duen beste funtzio bat herrigunera. Mediterraneo hirietan gainera, poltsiko-parkeak sortzen ari dira han-hemenka, berdegune freskagarri gisa. Etxeetako egoera jasangarria bilakatuko balitz, agian hiriak babestuko gaitu freskotasun-bunkerretan. ●

Guraso bakarreko familien eskubideak, noizko?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ester ama izan berri da eta 16 asteko baimena du haurra zaintzeko. Amabakarra da, Hego euskal herritarra, eta beraz bere umeak ez du bi gurasodun haurren eskubideaz gozatzeko: 32 asteko zaintza baimena, bi gurasoen artean. Bakarrik egonda laguntza gehien behar duenari zaintza denbora gutxiago ematen dio legeak, eta diskriminatzailea dela ulertuta, epaitegietara jo duen amabakar batek baino gehiagok lortu du bere baimena 32 atera luzatzea. Duela hilabete batzuetatik, ordea, are gehiago konplikatu da afera eta egosten ari den Familia legean ere zalantza ugari dago oraindik airean.

EAEko Auzitegi Nagusia aitzindaria izan zen 2020an, eta ordutik, justiziara jotzeko baliabide, aukera eta indarrak izan dituzten gurasobakarrek lortu izan dute umea zaintzeko bikotekide biei batera dagokien egun kopuru bera aitortzea. Pentsa, bi gurasodun familietan bat hiltzen bada, bizirik den gurasoak eskubidea du bien baimena hartzeko, "bi gurasoak bizirik balira umeak jasoko lukeen arreta baino txikiagoa ezin baitzaio eskaini umeari", dio Espainiako legeak; argudioak, aldiz, ez du balio bikotekiderik gabe guraso izan nahi dutenentzat.

Martxotik okerrera egin du kontuak: Espainiako Auzitegi Gorenak atzera bota zuen guraso bakarreko familiei baimen bikoitza ematea. Legeak ez duela halakorik jasotzen argudiatuta eskuak garbitu ditu Gorenak, eta aurrekari horrek zail jarri du bestelako epaiak lortzea maila beheagoko epaitegietan. Auzitegi Konstituzionalaren atea jotzen hasiak dira gurasobakarrek eta Europako Justizia Auzitegira jo duenik ere bada, baina bide luzea geratzen da aurretik.

Epaitegietako borrokak azken helburu bat duela diote amabakarren elkar- teek: legeak parekatu dezala bi gurasodun familiek duten zaintza baimena eta gurasobakarrek dutena. Espainiako Gobernuak eskuartearen duen Familia legeak baimena parekatzeko aukera jasotzen zuen lehen zirriborroan, baina koalizio gobernuaren desadostasunek neurria kolokan jarri dute, PSOEko gehiengoaren ustez neurriak kalte egingo liekeelako emakumei lan elkarrizketetan. Izan ere, gurasobakar gehien-gehienak emakumeak dira eta enpresek errezelo handiagoa izango omen dute emakumeak kontratatzeke, aurreikusiz bikotekide gabe haur- dun geratzeko bada 32 asteko baimena hartuko duela.

Espainian gobernu berria noiz eratuko zain, Familia legea berrartu ala berria egingo ote duten argitzeke dago, baina gurasobakarrentzako lege propioa eskatzen dute elkar- teek, izan beharko lituzketen eskubide guztiak ongi jasotzeko. Esaterako, Espainiako Gobernuak onartu zuen seme-alabak 8 urte bete arte zortzi asteko baimena har dezaketela gurasoek lanean, zaintzarako, baina hemen ere bi gurasoren artean 16 aste har ditzakete seme-alabaren beharrei erantzuteko, eta gurasobakarrek aldiz, zortzi gutzira. Mahai gainean jarri ohi den beste diskriminazio bat da bi guraso eta bi seme-alaba dituzten familietan, gurasoetako bat alargun geratzen bada familia ugaritzat jotzen dela automatikoki (horrek dakartzan hobarietara), baina bi seme-alaba eta guraso bakarra dituen familia ez da familia ugaritzat hartzen.

Ipar Euskal Herrian egoera ez da hobe, eta diputatu batek lege proposamena egin berri du Frantziako legebiltzarrean, gurasobakarren zaintza baimena bi gurasoenarekin parekatu dadin.

Finen, familia eredu nuklear eta tradizionala saritzen (eta gainerakoak zigortzen) duen sistema indartzen jarraitzen dute egungo lege eta ebazpen judizialek. Eta batez ere, haurra kaltetzen dute, haren eskubideak urratzen, atxikimendu gehien duen pertsonarengandik zaindua izateko denbora murrizten, zer eta hain funtsezko diren lehen hilabete horietan gainera... soilik familia batean eta ez bestean jaio direlako. ●

200

ikasgela itxi dituzte hamar urtetan, EAEko Haur Hezkuntzako bigarren mailan. Jaiotze-tasaren beherakadari lotuta, Steilasko Nagore Iturriozek eman du datua, eta hurrengo hamar urteetan jaiotze-tasa %20 baino gehiago jaitsiko dela ohartarazi du.

1,710

euro gasolinaren litroa eta 1,602 gasolioarena, erregaien prezioak errekorra gainditu zuen abuztu bukaeran, azken urtebeteko garestiena Hego Euskal Herrian.

%84

da monarkia eta errepublikaren artean errepublika nahiago duten gipuzkoarren kopurua, bizkaitarren %79 eta arabar eta nafarren %72. Espainiako Estatuan egin du galdeketa Elektomaniak.

“Torturaren biktimak indarkeria koiunturalaren biktimak dira, estatuaren egituratik kanpo”

IÑAKI SUBIJANA

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren hitzek hautsak harrotu dituzte. Egia Zor fundazioak erantzun dio tortura estatuak inpunitate osoz erabili duen “bidegabekeria” dela.

EL DIARIO VASCO (2023-08-30)



“Sail Ofizialeko film guztiak euskaraz azpidatzita ikusi ahal izatea euskaldunon eskubideak bermatzen hasteko aurrerapauso handia da”

PANTAILAK EUSKARAZ

Donostiako Zinemaldian, sail ofizialeko emanaldi guztiak euskarazko azpidatziak izango dituztela iragarri dute.

(2023-09-01)



**Anuntxi
Usarraga
Huici**

Mari Karmen Loiarte
lankidearen ama

*Une latz hauetan,
bat egiten dugu
famiariaren saminarekin*

ARGIAko lagunak

Fikzio sozialak



DIANA FRANCO

Mikel Laboaren *Izarren hautsa* abestia behin baino gehiagotan ekarri dut zutabe honetara, jakintasunez bete-riko letra da-eta, abesti zabala gizatasun eta kosmosaren arteko harremanaren inguruan. Bertan badago zati bat zeinetan txirotasunaren inguruan hitz egiten den: "Ez daukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona, bere premiak bete nahian beti bizi da gizona".

1990. urtean, Adela Cortina filosofoak, Valentziako Unibertsitatean Etika eta Filosofia Politikako katedradunak aporofia hitza sortu zuen. Wikipedian irakurri dut poros grekotik datorren hitza dela eta txi-roa esan nahi duela, beraz txirotasunari bel-durra adieraziko luke aporofobia hitzak. Adelaren arabera, gizakion benetako bel-durra da beste gizabanakoekin harremanak josterakoan haien "gabeziek" gu kutsatzea –"gabezia" kakotx artean, oso erlatiboa delako eta bakoitza hazia izan den lekuari eta barneratuta duen kolektibitatearen mundu-ikuskerari lotuta dagoelako-. Hala, pertsonok gure gizartearen parte izateko gaitzespenak ekiditeko ahaleginak egiten ditugu. Gure jatorrizko gabeziak atzean utzi nahi ditugu, gure gizartearen parte izateko bidean. Baina gizakion gizarteotan, aukerak izateko besteen onarpena behar da, gabezia horiek atzean utzi dituzula besteei ulertarazi behar diezu. Azken batean, onarpenak aukerak dakartza: lana, lagunak, zaintza, parte-hartzea, ongizatea...

Nola eta non adierazi zure bizitzan aukerak bideratu ditzaketenei zure bizitza ona dela? Onartua izan zaitezkeela? Azken hamarkadan, pertsona askok sare sozialetan aurkitu dugu lekua, geure baliagarritasuna adierazteko, geure bizitzaren irudi on bat partekatzeko. Baina, hasiera batean aukera zirudienak beste kutsu bat du gaur egun, eta azkenaldian betebeharra dirudi. Bizitza ona duenak ere beharra sentitzen du: asko duenak bere aukera onak erakusten ditu, eta ez duenak bere bizitzaren inguruan fikzio bat erakusten du, mundu horren parte dela sentitzeko. Plaza digitalean dena ondo doan ilusioa sortzen gabiltza, eremu digitalean aporofobia bizi-bizirik dago, ez dugu bertan txirotasuna ikusi nahi. Beharrak ukatzeko, fikzio sozialak sortu ote ditugu? ●



Kolpea Estatuari eta 'Françafrique' jarrerari

JENOFA BERHOKOIRIGOIN


Mali (2020), Ginea (2021), Burkina Faso (2022) Niger (2023) eta orain Gabon. Estatu bakoitzak du bere errealitate soziopolitikoak, eta begirada mende-baldarrak ezin dezake orokortasunik egin. Estatu-kolpe bakoitzak ditu bere berezitasunak eta arrazoiak, Afrika zabala delako eta herri bakoitzak duelako bere barne-errealitatea. Baina osagai komun batek batzen ditu bostak: guztiak dira Frantziaren kolonia izandakoak, 1950eko hamarkadaren bukaeran ala 1960koaren hastapenean independentzia lorturikoak, eta hala eta guztiz ere, hirurogei urtez gora pasa arren, Frantziaren atzaparretatik emantzipatzeko nahiarekin segitzen dutenak. Afrikar anitzek "neokolonialismotzat" daukaten Frantziaren gehiegizko presentziaren aurkako mezuak kausitu ditzakegu oihukaturiko leloen artean.

Françafrique hitzak aktualitatean segitzen du, beraz, nahiz eta kolonien garaiko harremanak izendatzeko asmatu zuten terminoa 1945ean. Dekolonizazioak ez zuen *Françafrique* espiritua desagerrarazi eta Afrikan dihardute Frantziako interesek, ofizialki ala estraofizialki, botere-guneetan ez bada, horietarik hurbil. Bistan da, Afrika bipiltzeko baimena ez doa musutruk eta Gabon dugu adibide esanguratsuenen artean.

Noski, 1967az geroztik Bongotarrak presidentetza beren esku atxikitzeak, hiru gabondarretatik bat pobrezia gorrian bizitzeak baina kanpoko multinazionalak lekuko petrolio, egur ala mineralen ustiapenari esker aberasteak bultzatu dute boterearen uzkaileko urratsa. Baina ondokoa ere kontuan hartzekoa da: oraindik ere Bongotarrak Frantziarekin duten harreman estua. Errealitatea irudikatzen zehaztu dezakegu, demagun, Gaboneko presidentetza 56 urtez atxiki izan duen familia hori dela Pariseko 28 luxuzko hotelen jabe –guztira 88 milioi euroko ondasuna, iazko justizia ikerketa baten arabera-. Bizkitartean, Gabonen egoteko eskubidea dute Frantziako 400 bat militarrek, "kooperaziorako" zein bertako enpresa frantsesen "defentsarako". Kolonialismoaz nostalgiko dena lasaitu daiteke beraz.

Hamarkadetan boterean diren autokratik haizatzeko bide izanik, estatu-kolpearen eramaile izandako militarrek herritarren txaloak jaso dituzte –tartean, gazte anitz-. Herri-tar horien matxinadaren bidez gertatu zitekeela boterearen uzkaile? Seguruena. Baina lekukoek arras ongi badakite errepresio bortitza pairatuko luketela. Bortitza eta indarrez bikoitza, *Françafrique* izpirituaren iraupena nahi duen Pariseko lagunduriko erantzuna izan ohi delako. ●

Hamabi arrazoi hirietan zuhaitz gehiago egon dadin

 JOSU GOIKO / SUSTATU

12 Reasons Why Cities Need More Trees testuaren itzulpena Elhuyarren Elia itzultzailearen laguntzarekin egin dut:

Temperaturaren kontrola

Zuhaitz handi batek 10 aire girotu makinak beste freskatzeko du, eta zuhaitzek ematen duten itzalak % 30 baino gehiago jaits dezake kaleko tenperatura.

Zarata murriztea

Zuhaitzek % 50 murriztu dezakete zarata. Autoen soinuaz, eraikuntzaz, sirenez, hegazkinez eta musikaz betetako hiriguneetan, zuhaitzak dira, funtsean, zarata blokeatzeko eta hiriak –etxeak eta lantokiak– isilago mantentzeko modurik onena.

Airearen garbitasuna

Zuhaitzek kutsatzaile kaltegarriak eta toxina ugari kanporatzen dituzte airetik. Hiriguneetan, airearen kalitatea oso txarra da maiz, eta ondorio larriak ditu gure osasunean. Zuhaitzei esker, arnasten dugun airea askoz garbiagoa da.

Oxigenoa

Kutsatzaile horiek guztiak xurgatzean, zuhaitzek oxigeno gehiago ere itzultzen diote hiri-inguruneari. Oxigeno-maila askoz txikiagoa da hirietan landan baino; zuhaitzek arazo hori konpontzen laguntzen dute.

Uraren kudeaketa

Zuhaitzek gu eta gure eraikinak euritik babesten gaituzte, eta hori oso garrantzitsua da, baina, horrez gain, ur-kanitate handiak xurgatzen dituzte, ur-isuriak murrizten dituzte eta uholdeen larritasuna eta haien arriskua txikitzen dute. Ez dezagun ahaztu zuhaitzen sustraiek kutsatzaileak xurgatzen dituztela eta horiek hiriko ur-horniduran sartzea eragozten dutela.

Osasun psikologikoa

Ikerketek frogatu dute egia zela uste genuena: gizakiak hirigune mortuetan baino askoz zoriontsuagoak dira naturak inguratuta daudenean. Tokiek gure emozioak, portaerak eta pentsamen-

duak moldatzen dituzte, eta zuhaitzek eragin guztiz positiboa dute gure psikologian. Zoriontsuago eta baketsuago izatearen onurak, gizabanako eta gizarte gisa, ikaragarriak dira.

Osasun fisikoa

Zuhaitzek airearen kalitatea eta hiriko ingurumena hobetzeaz gain, mesede egiten diote gure osasunari, jendea kanpora ateratzera animatzen dutelako. Bizikletan ateratzea, korrika egitea eta oinez ibiltzea arruntagoak dira zuhaitz asko dituzten hiriguneetan. Kanean denbora pasatzearen ondorioa dira gizarte-integrazioa eta komunitate indartsuagoak eratzea.

Pribatutasuna

Puntu simple bat, baina ez gutxiesgarria, da zuhaitzek pribatutasuna ematen dutela.

Ekonomia

Zaila da kalkulatzeko hiriko zuhaitzen etekin ekonomiko osoa. Jakina, kostuak daude, sustraiek kaltetutako azpiegiturak konpontzea eta zuhaitzak mantentzea barne. Baina onura ekonomiko osoak –zerrenda honetako gainerako guztiaren eta gehiagoren ondorio– nabarmen gaintzen du gastua. Zuhaitzei esker, hiriak aberatsagoak dira.

Basa bizitza


Zuhaitzak miniaturazko hiriak dira, eta ehunka espezieren habitat dira, hegaziak, ugaztunak eta intsektuak barne.

Argi-kutsadura

Zuhaitzek, beheheranzko argia blokatzeaz gain, gu eta gure hiriak freskoago mantenduz, kaleko argia, autoena, etxeetako eta publizitate-hesietakoa indargabetzen dute. Zeruak gabiagoak dira zuhaitz gehiago dituzten hirietan.

Estetika

Eta, azkenik, zuhaitzak ederrak dira. Hiri-inguruneen monotonia –geometria garbia, eskala handiko errepideak eta eraikinak, autoen ilara amaigabeak– puskatzen dute, haien enbor, adar, adaburu eta lorez. Irudikatu udazkenean eroritako hostoen kolore nabarrak, udaberriko loreen kolore zuri eta arrosak, udako adaburu berde handiak eta neguan antzizarrez estalitako adarrak. Zuhaitz bakoitza ikuskitzun bat da, konplexutasun eta testura handikoa, koloreduna eta usainduna, argiz zipriltindua oinarrian, azal zimurrekoa, sustrai korapilatsukoa; orri multzoak, petalo finak eta adar zurrunak dauzkana. Kale gutxi daude hobetuko ez lirakeenak zuhaitz baten estetika kaleidoskopikoarekin. Mundu osoko zuhaitz-espezie desberdin asko ez aipatzearren: sahatza, haritza, limondoa, gerezia, makala, astigarra, urkia, gaztainondoa, lizarra... zerrenda luzea da. Eragozpen batzuk daude hiriko zuhaitzentzat, gehienak inguruari lotutakoak, eta, jakina, ez dira guztiak egokiak. Baina bidezkoa dirudi esatea hiri askok onura jasoko luketela, gutxienez, han eta hemen zuhaitz batzuk izateagatik. ●



MUTURREKO EGURALDIAK EZ DIRA GAI HAIEK BAKARRIK KONTZIENTZIAK PIZTEKO

Uda honetan berriro biderkatu dira muturreko eguraldiak, Ipar hemisferioan han hemenka bero uhinak, lehor-teak edota suteak zabaldu direlarik. Klimatologoek duela 30 urtetik aipatzen dituzten beroketa globalaren eragin aurreikusiak dira, gero eta maizago –eta indartsuago– ikusiko ditugunak. Funtsean, kontuak ez du bertze azalpenik behar, eta horrekin bukatu nezake artikulu hori. Baina azalpen ezagun eta frogatu hori talde batzuk ez dute onartzen, funtzio politiko bat betetzen duten narratibak lehenetsiz eta marko horretan errudun identifikagarriak seinalatuz.

 NICOLAS GOÑI

Ukatze horrek arrazoi ezberdinak izan ditzake: edo klima aldatzen ari denik ez dute onartu nahi; edo aldatzen dela bai, baina, ezer egiterik ez omen dagoelakoan daude; edo hondamendi guzi horiek bertze erru bat dutelakoan daude. Azken kasu honetan errudunak “nazioaren etsaiak” izan ohi dira. Eguraldiak normala izaten jarraitzen duela diotenentzat aldiz “nazioaren etsaiak” klima aldaketa aitorrarazi nahi dutenak dira. Absurdoa dirudien arren, interpretazio horiek munduaren ikuspegi bat islatzen dute, narratiba bat. Eta eguraldi gertakariak ezohiko mailakoak izanik eta ezohiko kalteak sorturik ere, ez dira beti narratiba batzuk aldatzeko bezain indartsuak.

DENA NORMAL, DENA ONGI

Arizonan, uda honetako ezohiko beroari aurre egiteko otoitza egin zuten legegileek abuztu hasierako beren lehen sesioan: “Otoitz egiten dizugu, Aita, sufrimendua bukatzeko konponbideak lortzeko eta gure tenperatura behera itzultzeko, hainbati sosegua itzultzeko”. Phoenix hiriburuan 43 gradu gainditu ziren uztailako egun bakoitzean, marka historiko guziak gaindituz eta hamarna-

ka pertsonari bizia kenduz. Pandemiaren hasieran bezala, gorpuak biltzeko hozkailu berriak erosi behar izan zituzten. Arizonako alderdi errepublikarreko hainbat kidek, aldiz, Antonio Turielen esaera famatua –“dena normal, dena ongi”– errepikatzen zutela zirudien, baina modu ez ironikoan. Justine Wadsack senatari errepublikarrak “eguraldi hori normala da” zioen sare sozialetan, eta hedabideetan frenesia dagoela zioten bere alderdikide batzuk, helburua izanki ezkertiarren klima aldaketa narratibari oihartzuna ematea eta jendea gobernuari kontuak eskatzera bultzatzea.

Justin Heap Arizonako legegilea esplizituagoa izan da: bere ustez klima aldaketaren “narratiba mediatikoa” “elite globalek” bultzatzen omen dute, energia berdeak garatzeko subentzio publiko masiboak lortzeko omen. Adierazpen deigarria da, jakinik erregai fosilen sektoreak –tradizionalki alderdi errepublikarrari lotua– hainbat hamarkadatan energia berdeen garapena oztopatuzko eta petrolioaren negozioa jarraitzeko narratibak bultzatu dituela. Heapek aitortu du halere klima aldatzen ari dela eta CO2 isurketek zerikusia izan dezaketela, baina gehituz funtsean ezin duela onartu

gobernuaren esku hartze gehiago konponketarako, hori egitea ezkertiarregia litzatekeelako. 2012an Virginia estatuko Chris Stolle legegileak Virginiako itsas bazterreko uholdeei buruzko txosten batetik “itsas mailaren igoera” hitzak kenduarazi zituen, bere iritziz hitz horiek ezkertiarrek direlako. Nortzuk ari dira klimaren auzia politizatzen?

MEZULARIA HIL

Europa hegoaldean ere uda gogorra izan da, iberiar penintsulan bereziki lehorte luzeak kalte handiak eragin ditu laborantzaren sektorean. Egoera normala denik erratera inor ez zen ausartu, baina batzuentzat muturreko egoera hori ez zen aski klimarekin ea zerbait benetan gertatzen ari den ausnartzeko. Klima aldaketaren auzia “elite globalek inposaturiko” iruzurra edo aitzaki hutsa dela sinetsi nahi duenarentzat, lehor-tearen errua baitezpada bertze nonbait egon behar da. AEMET meteorologiako agenzia berak eguraldia manipulatzeko delako zurrumuruak zabaltzen eta indarra hartzen hasiz gero, *chemtrail* edo aire-arrasoen narratiba zahar hura berpiztuz, maila handiko jazarpen kanpaina pairatu zuten agenzia honetako langileek. “Kri-

PAVLOS ROUFOS



“ETORKINENGATIK”, BESTE BEHIN

Grezian, 2023ko uda bereziki gogorra izaten ari da oihan suteei dagokienez, eta horien lehen lerroan dauden errefuxiatuei leporatzen zaie suteak piztea.

minalak”, “hiltzaileak”, “gaitzaren zerbitzuko informazioaren sikarioak”, “manipulatzaileak”, “ordainduko duzue”, “zuei begira gaude” izan ziren jasotako mezuetarik batzuk. Apirilean Isabel Moreno meteorologoak sare sozial batean azaldu zuen berriro euri fronte batek Espainia sailhestuko zuela. Erantzunak azkar agertu ziren: “Ez gaitzazu inozotzat hartu”, “lehortzen gaituzte eta zu zara horien bozeramailea” eta holako. Morenok ez zuen inoiz ikusi bere mezu bati hainbat erantzun, ezta ere hainbertze oldarkortasun. AEMETeko bozeramaile Estrella Gutierrezek azaldu zuen lanean daramatzen 30 urteetan inoiz ez zutela halako egoerarik pairatu.


ARRAZISTENTZAT AITZAKI GEHIAGO

Grezian ehundaka sute izan dira, horietarik asko kontrolagabeak. Handiena Evros eskualdean egon da, Turkiarekiko mugan –Copernicus zerbitzuaren arabera, Europan urte askotan ikusitako sute handiena

izan da–. Poliziak eta suhiltzaileek sutea tximista batek piztu duela baieztatu arren, errefuxiatuek abiarazi omen dutenaren narratiba oso azkar zabaldu da, sutea bera baino azkarrago. Sorpresarik gabe, eskuin muturreko alderdiek miliziak osatzera deitu dute, giza-ehizan aritzeko. Pavlos Roufos saiakeragileak azaldu duenez, Evros eskualdeko biztanle batek hamabost pertsona atxilotu zituen bagoi batean, bideo bat argitaratu eta gero iruzkin gehienek errefuxiatuak tirokatzera edo zuzenean erretzera deitzen zuten. Dadia oihanean poliziatik ihes egin nahian bertze hemezortzi pertsona suak kiskailduta hilik ere, giroa ez da baretu. Zurrumurru zentzugabeenak zabaltzen dira, hala nola errefuxiatuak suhiltzaileen lana oztopatzen saiatzen omen direla hegazkinei harriak jaurtiz. Hori bertako jende gehiegik sinesten dute. Gobernuak eromen kolektibo honen aurka deus ez egiteaz gain, migrazioen ministroak adierazi zuen hemezortzi heriotza ho-

riek legez kanpoko muga gainditzearen ondorioa direla, bertzerik gabe. Roufosek dio dagoeneko Grezian menderakuntza menderatuek berek zabaltzen dutela, eta inboluzio hori hainbat urteko beherapen ekonomikoak baita harreman sozialen desegiteak ere elikatu dutela.

Psikologia sozialeko ikertzaile Harald Welzerrek *Klimakriege* (“Klimaren Gerrak”) liburuan azaltzen zuen muturreko eguraldi gertakariak pertsona talde baten bizi baldintzak kaltetzen dituztenean, Espainian lehorteak edo Grezian suteek egiten duten bezala, horrek sortzen den injustizia sentimenduak errudun identifikagarri baten bilaketa bultzatzen dezakeela. Ikus dezakegunez, funtzio politiko bat betetzen duen narratiba bateko errudunak dira, “nazioaren etsai” funtzioa alegia –balizko elite global izkutua edo atzerri-tarrak–, atentzioa eta haserre haiengana bideratzeko, bitartean klima aldaketa eta bere inplikazio sozialak aipatu gabe jarraitzeko. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Evil Eye

Helena Barrenetxea

AHAL ETA EZINAK



JENDEA FRONTOIRA SARTU ETA ZESTA PUNTAN NESKA GIROA ERE IKUSTEA NAHI NUKE, EZ BAKARRIK MUTIL GIROA



Artean neska koxkorra zela, zesta punta unibertsitatera eraman zuen aitaitak Markinan. Joko ikusgarria ikusi orduko argitu zitzaizkion begiak, egin zioten ñir-ñir. Aukera sortu zitzaizolarik hasi zen frontoian, bizi erdia darama Durangoko Ezkurdin, esku batean zesta, eskolako liburuak bestean...

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Zer dugu Durangon, Helena? Tabiratik Ezkurdi frontoira kilometro erdia ere bai, eta euskarazko hitz bat ere ez dut entzun pilotalekura sartu arte...

Durangon ez da euskaraz entzuten. Kallean zoazela, ez, behintzat. Horrela da hemen. Eta eskolan ere, berdin. Euskaraz ikasten dugu, baina hitz egin... Irakaslea aurrean dagoenean, euskaraz, baina bera ez dagoenean, dena erdaraz. Frontoian, bai, hemen euskaraz egiten dugu. Hala ere, pilotan erakusten dugunak ez daki euskaraz, baina gure artean,

pilotarion artean, euskaraz egiten dugu. Baina hemen, Ezkurdin, ez gara pilotari asko ere: txikiak, dozena erdia-edo; hamasei urte ingurukoak, lau bat -ni tartean naizela-; gainerakoak berrogei urtetik gorako jende nagusia da. Eta denak dira mutilak, ni izan ezik. Neska bakarra naiz Durangon zesta punta jokalaria. Eta entrenatzeko garaian, mutilen kontra jokatzen dut, berrogei urtekoekin.

Interneten ikusi zaitut jokatzen. Ederto moldatzen zara...

Bagoaz ikasten, baina hasieran, pilota

ikusi ere ez nuen egiten!... Gurasoak markinarrak ditut, eta Markinatik datorkit zesta punta zaletasuna. Durangon bizi gara, baina aitaita-amamak Markinan, eta, eskolan jai genuen egun batean -baina gurasoek lana-, gurasoek Markinara eroan gintuzten, aitaita-amamen etxera. Aitaitak lagunartea dauka hango frontoian, beraren lagun asko pilotari izan dira, eta egun hartan, ni hartu eta frontoira eraman ninduen. Partidua jokatzen ari ziren, eta ikusten geratu ginen. Eta ikusi nuen, eta asko gustatu zitzaidan: "Nik hau probatu egin behar



LABORAL
Kutxa

APALATEGUI

LA JUV

medic

Helena Barrenetxea Fernandez

DURANGO, 2007



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu zuen aurreko ikasturtean, eta batxilergo lehen maila ikasten hasiko da aurten. Ikasle izateaz gainera, zesta punta jokalaria da. Zortzi urte zituela hasi zen pilotan ikasten Durangoko Ezkurdi jai-alain, Azkarate aita-semeen eskolan, eta bertan da kasik egunero, frontoia etxe eginik. Pilotari profesional izateari ezinezko deritza gaur-gaurkoz, eta, bitartean, ikasketak gauzatzeaz batera, polito moldatzen da idazten, Julene Azpeitia eta Bizente Zabala literatura sariak erakusten dutenez, edo *Zesta punta* poemak (18. orrialdean irakur daiteke).

dut”, esan nion neure buruari. Eta, hurrengo batean, Durangoko eskolan geundela, mutil bat etorri zen eskolaz kanpoko ekintzei buruz-eta hitz egiten, eta esan zuen zesta punta eskola zegoela Durangon. Eta etxera joan, eta aitari esan nion zesta jokatzeko ikasi nahi nuela. Eta markinarra denez, aitak badaki zer den pilota eta zer den zesta, eta baietz, eta izena eman nuen.

Erraz esan duzu.

Bai, erraz esan dut, baina lehenengo esan zidaten hobe nuela palaz jokatu, neska talde bat ere bazegoela palaz jokatzeko zuena, eta hobe nuela palaz. Baina nik ez nuen palaz jokatu nahi, ez neukan dudarik, nik zesta punta nahi nuen. Eta Ezkurdi frontoira etorri nintzen, eta hasi nintzen zestan ikasten. Eta hementxe nago. Baina esan dizut, hasieran ez nuen pilota ere ikusten, eta pilota hartu, bota, eta ez nion aurreko paretari ere ematen! Baina jokatzeko ikusi orduko gustatu zitzaidan, kirol ezberdina zen.

Eta zelan ikasi duzu zesta puntan? Pilota zestan sartu eta aurreko hormaraino botatzen, eta tantoa egiten, eta hainbeste trikimailu? Zesta punta abiadura handiko jokoa da.

Zelan ikasi dudana? Orduak eta orduak sartuta! Orduak eta orduak eman ditut pilota zestan sartzen saiatzen, eta sartu eta gero, paretaraino botatzen saiatzen... Nahi beste ordu sartu ditut ikasten! Jarri neu bakarrik frontoiaren atzeko aldean, bota pilota paretaren kontra, eta, bueltan, zestan sartzen saiatu. Eta saiatu, eta saiatu, eta saiatu. Horrela ikasten da, eta horrelaxe ikasi dut. Ordubeteko entrenamenduan, bostehun pilotakada ere jo izan ditut! Baina ez dago ikasteko beste modurik, nik dakidala, behintzat. Zortzi urterekin hasi nintzen, bizi erdia daramat pilotan, eta zer edo zer ikasiko ahal nuen!

Zer edo zer baino gehiago. Hortxe ikusi zintugun udaberrian Winter Series txapelketan. Baduzue lehiaketarik...

Pilota federazioak liga antolatzen du eta, horretan, gainerako kiroletan egiten den moduan jokatzeko du. Badugu liga, bai, baina gure kasuan, pilotari gutxi garenez, laster amaitzen da gure liga. Orduan, edo herriko jaietan, edo herrian herriko pilota eskolek antola-

tzen duten torneoetan parte hartzen dugu, Markinan, Durangon, Berriatun, Zumaian, Tolosan... Esan dizut, gutxi gara. Txapelketetan parte hartzen dugunok, elitekoak-edo, hamahiru gara. Badira neska gehiago entrenatzen direnak, baina ez dute txapelketarik jokatu nahi, iruditzen zaie ez daudela behar bezain ondo prestatuta. Hortaz, hamahiru horiek jokatzeko dugu beti. Egia esan, aspertuta gaude beti elkarren kontra jokatzeko.

Aspertuta?

Bai, beti kontrario berak gara. Ono baino hobeto ezagutzen dugu elkar, bata bestearen jokoa esan nahi dut, bataren indarrak eta bestearen ahuleziak. Kontrario berriak beharko genituzke, baina ez da inor agertzen. Nik



ERAKUTSIZ IKASI

“Roberto eta Asier Azkarate aita-semeak dira gure irakasleak. Durangarrak dira, eta zesta punta jokalaria izan ziren, Rober [Azkarate], Amerikan ere ibili zen, eta handik etorri, eta zesta punta irakasleak ditugu orain Ezkurdin. Ni eurekin hasi nintzen pilotan ikasten, eta, orain, haiei lagundu ere egiten diet, pilotari txikiei erakusten diet-eta. Eta erakutsiz, asko ikasten dut: gehiago ikasten dut erakutsiz, bakarrik entrenatuz baino”.

EREDUAK

“Ikusita nago oraingo jokalaria profesionalak, Goiko-eta [Iñaki Osa Goikoetxea]... Baina ez noa faboritorik esaten, asko ezagutzen ditut-eta. Nik, hala ere, Aritz Erkiagaren eta Goikoren antza izan nahi nuke. Aurrelaria naiz, eta eurak ditut aurrelaririk onenak, oraingo onenak, eta orain dela hamar urteko onenak ere bai. Nik euren ereduari jarraitzen diot, eurek egiten dutena egiten dut”.

horixe nahi dut, neska gehiagok jokatzea zesta puntan. Hasteko, neska edo mutil, jende gehiagok jokatzea zesta puntan, baina, batez ere, neska gehiagok jokatzea. Garrantzitsua da neskek ikustea guk kirol hau praktikatu dezakegula... Gure amak kontatzen du txikitik, Markinan, frontoira ez zela sartu ere egiten, ez ziotela lagatzen, zesta ez omen zelako nesken joko. Ez zioten uzten frontoian sarearen bestaldean jesarrita begira egoten ere! Aurreiritzi asko daude, eta horiek gainditu beharra dago. Neskek ezin dutela zestan jokatu? Nik jokatzen dut, bada, eta neska naiz!

Eta zurekin batera, eta kontra, beste zenbait neska. Zein dituzu kontrario gogorrenak?

Erika Mugartegi eta Arai Lejardi, esango nuke. Maite Ortiz de Mendibil munduko txapelduna izana da, onenetakoa da, baina [Erika] Mugartegi ikaragarria da, gure artean, txantxetan, robota dela esaten dugu: pilota denak hartzen ditu, denak sartzen ditu, batere hutsik egin gabe. Eta pilota hartu eta atzera, atzera behin eta birritan, kontrarioa nekatu arte. Hori da bere joko: kontrarioa gogaitzea. Eta, aldiz, zuk errematea jo, eta jasoko du! Ez du bat ere huts egiten. Eta bota dejada, eta jasoko du. Eta bota atzera hamargarren koadrora, eta hartuko du! Halakoxea da Mugartegi.

Eta gustuko atzelaria?

Eneritz Lizardirekin eta Maialen Aldazabalekin jokatu izan dut, eta biak dira oso onak. Maialenen alde ona da, adibidez, asko laguntzen digula aurrelari. Berba asko egiten digu, trankildu egiten gaitu tantoren bat huts eginda ere.

Jokarariak gehiago izanagatik ere, neska bakarra zaitugu

Durangoko Ezkurdi honetan zesta punta jokatzen...

Eta jende nagusiarekin entrenatu behar izaten dut, eta mutilen kontra ere jokatzen dut, baina ez nire adinekoen kontra, txikiagoen kontra bai. Ezin dut nire adineko mutil baten kontra jokatu, hark duen indarra nik ez daukadalako. Ezin diot pilotari hark ematen dion abiadurarik eman! Besterik da abilidadea, hori pertsonen araberakoa da-eta. Eta batzuetan iruditzen zait neskok abili-

“
Iruditzen zait neskok abilidadea handiagoa dugula mutilek baino, baina indarra haiek dute, eta frontoian indarra igarri egiten da”

dade handiagoa dugula mutilek baino, baina indarra haiek dute, eta frontoian indarra igarri egiten da, indarrak asko esan nahi du, pilotari ematen zaion abiadura esan nahi du, eta horretan ez dago konparaziorik nesken eta mutilen artean. Hala ere, zesta puntan jokatuko bagenu, baina teniseko pilota batekin, uste dut neska askok irabazi egingo lieketela mutil askori.

Indarra eta abilidadea aipatu dituzunez, nola uztartzen dituzu zuk horiek biak?

Pilotan hasi nintzenean, ez neukan indarririk, eta, hortaz, beti aurrean jokatu behar izaten nuen. Ni laugarren koadroan jarri, igual, eta ezin pilota zortzigarreneira eraman! Eta, bestalde, gure irakasleak, azkaratetarrak, aurrelariak izanak dira. Eta aurrean ipintzeko esan zidaten. Aurrelari jokatu nuen lehenengo partidua ere, eta gustatu egin zitzaidan, eta aurrean jokatzen nabil ordutik hona. Jakina, orain orduan baino indar handiagoa daukat, baina eskuineko besoan. Beti eskuinarekin jotzen, gihartsua daukat; ezkerre, berriz, eskas-
txoa, pobre.

Aurrelariaren ardura ohi da tantoak amaitzea...



Zer behar da horretarako?

Tantoa amaitzeko? Ausardia eta bisioa. Hori ez badaukazu, ezin izan zintezke aurrelari. Aurrelariak amaitu behar du tantoa, abildade hori eduki behar du, eta nik badaukat. Ikasi egin dut. Era-kutsi egin didate, tantoa zelan egin ulertu dut, modua harrapatu dut. Bestela, pilota jo eta jo, beti atzera eta beti atzera, tantorik ez dago. Zure jokoa baldin bada beti atzean eustea, hobe duzu atzelari jokatu. Hasieran esan nion neure buruari: "Uf, ez dakit, bada, asmatuko dudan!". Edo, pentsatu nuen: "Eta ondo irteten ez bada?!". Ausardia ere izan behar duzu: tantoa amaitzeko beldurrez bazaude, ezin izan zintezke aurrelari. Zeuk eman behar duzu pau-soa: edo moztu, edo dejada, edo hor-mabikoa...

Zesta punta jokalaria zara, batxilergo ikasketak ere egiten ari zara... Kirolari profesionala izan nahi zenuke...

Kirolari guztiek izan nahi dute profesional, egiten duten kirola egin nahi dute. Gure kasuan, oraindik ez da posible, hamar jokalaria gara, gazteak gara, ikasketak egiten ari gara. Hortaz, bitartean, gizarteak nesken kirolari behar

*Azken hitza***ZESTA PUNTA**

Zesta punta
Zuentzat, niretzat
Zuentzat kirol bat, niretzat pasioa
Zuentzat kultura, niretzat poza
Zuentzat frontoia, niretzat bigarren etxea
Zuentzat bikotea, niretzat laguna
Zuentzat pilota, niretzat indarra
Zuentzat txuria, niretzat elegantzia
Zuentzat zesta eskola, niretzat bigarren familia
Zuentzat zesta, niretzat lagunik onena
Zuentzat 30 tanto, niretzat izerdia
Zuentzat hilda dago, niretzat bizipoza

Ez da erraza horrelako frontoi bat aurkitzea, historia izugarriduna, orain zoritxarrez ahaztua.
Ez da erraza horrelako eskola bat aurkitzea, profesionalak izandako irakasleduna.
Ez da erraza horrelako jendea aurkitzea egun batetik bestera zure familia bihurtzen dena.
Ez da erraza horrelako entsaio bat aurkitzea, poz eta barre artean jokatuaz disfrutatzea.

Durango Zesta-Punta Eskola, ez da erraza horrelako besterik aurkitzea.

(Helena Barrenetxea Fernandezek 2021ean Durangoko alkateari idatzia, frontoi duina eskatuz. Handik urtebetera eraberritu zuten, eta egin zuen lehen saka Barrenetxeak)

duen garrantzia ematea nahi dugu, ikusgarri izatea, jendeak jakitea neskek ere jokatzen dutela zesta puntan, jokatzen ahal dugula, erakustaldi eder bat egiteko maila dugula... Nire ametsa ez da ni profesional izatera heltzea, nik zesta punta uzten dudanean erreleboa izatea baizik. Nahi nuke neska gazteek -ni baino gazteagoak, esan nahi dut-, zestan jokatzea, orain baino askoz neska gehiagok jokatzea zesta puntan -Ezkurdin, batez ere, ni bakarrik nago-eta-, jendea frontoira sartu eta zesta puntan neska giroa ere ikustea, ez bakarrik mutil giroa.

Dedikazioaz ari, gutxik ematen dute zuk bezainbeste ordu Ezkurdin...

Egunak pasatzen ditut nik frontoian! Hemen naiz martitzen eta eguenetan, egun osoan! Eskola 16:30etan amaitu, neba hartu -hura ere pilotan ikasten ari da-, eta frontoian naiz 16:45ean, 21:00ak arte. Batean, txikiei erakusten; bestean, neu entrenatzen. Beti frontoian ni! ●

mitxelena
MEKANIZATUAK

Enlago industrialdea 21, HERNANI 943 55 25 12 - 16
info@talleremitxelena.eu www.talleremitxelena.eu



BRICS taldearen zabalkunde historikoa

2023 urte garrantzitsua izaten ari da BRICS taldearentzat, alde batetik, lehen aldiz G7aren BPGa gainditu dute erosahalmenaren parekotasunean eta, bestalde, abuztuan Johannesburgoan egin duten XV. gailurrean onarturiko zabalkundearekin birfundatu egin da.

Ohikoa da BRICSak G7arekin kontrajartzea, baina bi taldeen izaera oso desberdina da. G7an, Mendebaldea trinkotzen duten gainerako erakundeetan bezala, Washingtonek agintzen du. Aldiz, BRICSek ezberdinen arteko lankidetzeta, adostasuna eta inposaketarik eza dute oinarri, eta askotan ikuspegi kontrajarriak eta gatazkak dituzte. Hala ere, bakoitzaren interes nazional legitimoen aitortenean oinarrituta, lankidetzeta ekonomikorako esparru multilateralala erakitzen dute, eta horrek eragin positiboak ditu dimentsio politikoan ere bai. Horren adibide da Txinak Saudi Arabiaren eta Iranen arteko distentsio agertoki bat lortu duela.

Hego Afrikako gailurrean ia 40 herrialdetako ordezkariak parte hartu zuten. Txinak hamar herrialde berri nahi zituen taldean eta Indiak hiru baino ez. Azkenean erdibidea sei herrialdetara zabaltzeko akordioa izan da, nahiz eta garbi geratu den oraingoa etorriko diren zabalkunde gehiagoren lehena baino ez dela izan.

Iran onartua izango zela garbi zegoen, Txina eta Errusiaren bazkide estrategikoa baita. Beste hautagaien artean

Garapen bidean dauden herrialdeak mundu berri bat eraikitzen ari dira nazioarteko harremanak demokratizatze eta herrialdeen arteko aberastasun banaketa justuagoa izateko

Pekinek interes berezia zuen ekarpen energetikoan, horregatik, Saudi Arabia eta Arabiar Emirerri Batuak sartu dira. Orain gutxira arte Argentinak hautagai seguru zirudien, baina bizi duen krisiarekin zalantzak egon dira azken momentura arte. Afrikatik Egipto eta Etiopia onartuak izan dira; oraingoz Aljeria kanpoan geratu da, Saharaz hegoaldeko herrialde bat hartu nahi zutelako.

BRICS 11ek munduko petrolio ekoizpenaren ia erdia eta gasaren heren bat kontrolatuko dute. Datorren urterako, Aljeria, Bolivia, Indonesia, Kazakhstan eta Venezuela sartuko balira, petrolioaren munduko ekoizpenaren bi herenak eta gasaren erdia inguru izango lituzkete. Horrez gain, Txina buru duen *Belt & Road initiative* (Zetaren Ibilbide berria) ekimenak bultzatzen dituen merkataritza-korridoreak ziurtatuko dituzte, lu-



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA


rretik zein itsasotik. Bereziki deigarria da Arabiako itsasoa, Omango golkoa, Persiar golkoa, Itsaso Gorria eta Suezko kanala BRICS herrialdeen kontrolpean geratuko direla. Horrek esan nahi du Mendebaldeak eremu horietan duen eragina nabarmen txikituko dela. Era berean, dolarraren garrantzia txikitze lanetan dihardute. BRICS 11ko kideek eta haien aliatu batzuek iragarri dute merkataritza beraien monetetan area-gotuko dutela, herrialdeen arteko merkataritzarako likidazio-moneta bakar bat izateko lanetan jarraitu bitartean.

Hegoalde Globalaren eta Mendebalde kolektiboaren arteko oreka aldatzen ari da. Garapen bidean dauden herrialdeak mundu berri bat eraikitzen ari dira nazioarteko harremanak demokratizatze eta herrialdeen arteko aberastasun banaketa justuagoa izateko. Ostertz hau, baina, Mendebaldean ez da begi onez ikusten eta jakina da oztopatzen eta sabotatzen jarraituko dutela. Halere, geroz eta zailagoa izango zaio bortxa ekonomikoa erabiltzea Hegoalde Globalen herrialdeen aliantzek dentsitatean eta kohesioan irabazten duten heinean. Momenturen batean Washingtonek jartzen dituen zigor ekonomikoak erantzun irmoak izan ditzake BRICS 11 taldetik, adibidez, lehengaien eta merkantzien hornidura geldiaraztea. Mundua aldatu egin da, baina antza Mendebaldean itsu eta gor gaude eta ez dugu errealitate berriara egokitu nahi. ●

Gero dioenak



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Urte urte porroskatzen doan erlaitzan gaindi ibili ginen kresalaz mozkortzen. Hondartzetan, oihala hedatzeko tokia aurkitzea genuen kezka, uhainetan itzulipurdika aritzea, azala uretan zimurtu arte. Kurritu genituen bortu urrunak, mendiak zein goragoka lehiatzen diren lekuak; duela zenbait urte uda betean elur eta izotz aztarnak zituzten eta gaur biluzirik eguzkitan kiskaltzen diren mendien aitzinean loriatu ginen. Han, belardi zabal eta berdeak ziren lekuetan, soro idor eta horiak dira orain bistak ematen duen bezain urrun. Anartean, Landes eta Biarnoan gaindi arto landek fresko iraun zuten, ureztaturik, usaian bezala eta auzoak pizina eraikitzen hasi ziren, baimena di-da lorturik, nahiz eta hondartzatik bi kilometrotara bizi. Hondarkinez pentsatu ordez, nahiago izan genuen zigarro bat erre ilusentiarri so, konpostagailuaren inarrostera joanik baino. Ongi pasa genuen zenbait egunez, dirua zegoeno gastatzen, norberaren xilkoaren periferiatik hara dena urrunago haizatuz, gure zerbitzuko langile prekarioen egoeraz kezkatu gabe eta alokatu genuen bizitegia ea norbaitek faltan ote zuen arrangeratu gabe. Denek bezala iragan ge-

nuen uda, betaurreko beltzak goizetik arrats soinean, bakean eta lorian.

Hori arazoa ere bada, bizi garelako aldatu gabe, urgentziarik gabe, bihar munaren axolarik gabe, bizia betiko segurtatua bagenu bezala, etorkizunaren atarian ez bagina bezala. Zergatik gara hainbeste ez-aldatzen? Zergatik ditugu gauzak egiten beti bezala, denek bezala, urgentziarik ez balitz bezala? Alta, ingurumenari begirako kezka partekatzen omen du jendeen %80k.

Urgentzia ez du nehork ukatzen baina nehor gutxi da aldatzen. Eta nago ez dugula oraindik beldurrik aski, hori dela arrazoinetarik bat ez-aldatzeko, eta ez dugula proposamenik horretarako. Segitzen dugu berdintsu, ez baita aipu eta proposamen serioarik egiten. Eginak zaizkigun informazio saioetan, baita proposatuak zaizkigun fikzio eta denbora pasa guzietan ere, irudi katastrofistak agertzen zaizkigu, dena sute eta gosete, gertatu arau, eta horien amaiera gisa jendartearen suntsiketa baizik ez da aipu. Aldiz, aipu baikor eta pedagogia gutxi ikusten ditugu aldaketaren alde.

Squid Game seriearen haritik zapartatu ziren zapata xurien salmentak baita modaz pasatu kirol jantzi itsusie-

na ere. Brad Pittek kafea (kapsula kutsagarritan ekoitzia) edaten duenean, markaren salmenta eta kafe kontsumoa emendatzen da %20 urtebete barne. Zer gerta daiteke horrelako serie edo publizitate batek bizi eredu berri baten aipua eginen balu? Konpostagailuen erabilpena agertuko balitz bideo jokoetan, edo uraren berrerabilpen sistemak gauza arrunt gisa integratuko balira Netflixen? Zein ondorio luke Tom Cruise ikusteak gobernuen eta lobbyen planak deuseztatzen, megabusiness delakoen kontrako borroka batean murgildurik? Ez ote luke onura gehiago eszenario negargarriak plaza ratzeak baino, trantsizioa serioarki abiatu duen herri bat aurkezteak? Frantses gobernuak ingurumenaren eta bizi eredu berrien aldeko mugimenduak kriminalizatzea baino, ez ote lituzke ahots horiek integratu beharko?

Beti biharko uzten dira jada atzokoak diren erronkak eta alertak gutxiesten. Beraz, nola asmatuko du norberak zein den garatu behar duen eredu, erakusten bazaio dena den paretaren kontra goazela, altxatzen direnak gaizkileak direla eta bizi kalitatea kontsumoaren indizeak badu markatzen? ●



ANDREA BAROLO
AZET ETXEBIZITZA
SINDIKATUKO KIDEA

Europa probintzializatu, eurozentrismoa apurtu!

Eraso inperialista areagotzen dabil Sahel-en. Gaur egun, Afrikako zonalde hora Mendebalde Kolektiboaren hegemonia inperialistari eusteko borroka fronte garrantzitsuenetariko bat bihurtu da. Azken boladan, zonalde horretan dauden indar harremanak aldatzen ari dira: Mali, Burkina Faso eta Niger mendebaldeko uztarri inperialistaren aurka altxatzen hasi dira eta nazioarteko aliantza berriak sustatzeari ekin diote.

Ordea, mendebaldetik ez da elkartasun antiinperialistaren zantzurik antolatzen ari. Horren arrazoa Europako ezkerrean errepikatzen den gaixotasun zahar bat da: eurozentrismoa.

Sahelekiko eurozentrismoa bi modutan azaleratzen ari da. Lehenik, haien burua "marxistatzat" dutenak daude, egungo prozesu anti-kolonialak kritikatzeko dituztenak "benetan sozialistak" ez izateagatik. Analisi dialektiko gisa saltzen diren "kritika" horiek, berriz, ezkertiaratasun akademiko baten dogmatismoa eta eurozentrismoa goitik behera erreproduzitzen dute. Hegoalde Globalen eman diren askapen prozesuen aurka egin ziren akusazio berberak dira: Ho Chi Minh, Cabral, Fidel edo Sankararen aurka egin zirenak, besteak beste.

Bigarrenik, eurozentrismoaren fronte berriago bat dugu, are teleologikoagoa dena: geopolitikan adituak, dena "nazioarteko harremanen" betaurrekoen bi-

tartez ikusten dutenak. Horien arabera, Sahelen gertatzen ari dena (Donbassen, Abya Yalan eta Ekialde Hurbilean gertatzen den moduan) "inperialisten arteko gerraren" ondorioa besterik ez litzateke. Hegoalde Globaleko herri langileek egiten dutena egiten dutela, peoi geopolitikoak baino ez lirateke izango. Diskurtso hori paternalismoaren adibide argia da: Hegoalde Globaleko herriak irteerarik gabeko begizta baten barruan harrapatzen ditu, beren etorkizunaren subjektu izateko inolako aukerarik gabekoa.

Bi diskurtso horiek marko epistemologiko bera dute, eurozentrismoarena, baita ondorioa ere: ezintasun politikoarena. Saheleko herri langileak inperialismoaren aurka mobilizatzen diren bitartean, "gure" inperialismoak herri horien aurkako gerra berria hasten du (ekonomikoa, kulturala eta militarra). Eta gu, bitartean, elkartasun internazionalista antolatu beharrean, Europatik eztabaidatzen gabilta ea Sahelekoa "benetako iraultza" ote den, edota nola deskolonizatuko ginatkeen gu Sahelen biziko bagina.

Zentzugabekeria horren aurrean, mugimendu eta intelektual post-kolonialek (Fanon-etik Chakrabarty-ra) egiten ziguten deskolonizaziorako deia jasotzea premiazkoa da: borroka antiinperialista berrantola dezagun, eurozentrismoa apurtu, eta Europa probintzializatu. ●

Hutsuneak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Egunero etxetik ikusten dudana Olari-zu eta aspaldi etxe bihurtutako Salburua gorri markatzen dizkit zuzentzaileak. Izen horiek arrotzak balira bezala euskal kulturarentzat. Bi hitzak akatsak balira bezala euskararentzat. Aitzitik, proba azkar bat eginda, Gros eta Sagues onartzen dituela ohartu naiz.

Oso bestelako proba bat izan zen lehengo urtean Gasteizen ikusitako antzezlan komikoaren estreinarena: *Patata minak*, Ane Gebararen eta Aitor Vinagreten eskutik. Besteak beste, babazorro eta euskaldun izateagatik oraindik ikusi eta entzun behar direnek

barre andana eragin zuten bertaratutako artean. Gustatu zitzaizkidan Arabatik egindako umore freskoa, oraindik indarrean diren zenbait euskal kluxe agerian utziz.

Egunero etxetik ikusten dudana Olari-zu eta aspaldi etxe bihurtutako Salburua gorri markatzen dizkit zuzentzaileak. Eta esango nuke horietan ere ageri direla euskal kluxeen ajeak. Ikasturte berria abian den honetan, Arabaren gaineko ezagutza falta nabaria da oraindik euskaldun ez gutxiren artean. Eta gauza jakina da, ezagutza falta delarik, zerekin betetzen ditugun hutsuneak. ●

Zaintzaren iraultza



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Iraultza txikien akanpandan parte hartu nuen uztailean, zaintzari buruzko hausnarketa egiteko. Mahaiaren inguruan bost emakume eseri ginen: Arabako etxe- eta zainketa-langileen elkarreko Laura eta Shirley; *Denon bizitzak erdigunean* taldeko Paula eta Ainhoa; eta Kukuso taldeko partaide, ni neu.

Askotan gertatzen den bezala, Shirley eta Laurak beste partaide guztiak "lurra zapaltzera" behartu gintuzten, beren errealitatearen argazki gordina erakutsi zigutenean. Oso aldarrikapen zehatzak egin zituzten: barneko langile gisako lan domestikoaren abolizioa; lan baldintzen arautzea; eta Segurantzaren Sozialaren erregimen orokorrean sartzea, beste langileak bezala. Hau da, esan ziguten esplotaziotik ateratzeko oinarrizko eskubideak ezinbesteko bermeak direla.

Sistema kapitalista bera bezalaxe, gure jendartearen zaintzaren garapena ere krisian dago; eta feminismoa hausnarketa ugari egiten ari da krisialditik ateratzeko, baina ez da erraza. Gure jendartearen antolakuntzak paradoxa sortu du: emakume batzuek ez dute zaintzaren lana asumitzen, patriarkatuak inposatu duelako; baina, aldi berean,

Agian orain arte askok daukagun bizimodua, etengabeko kontsumoan murgildutakoa, aldatu beharko litzateke, eta denbora eta baliabide gehiago gure ondokoan zaintzan inbertitu

kate zitalaren hurrengo mailan beste emakume batzuk daude, pobreagoak eta arrazializatuak, eta beraiek behartuta daude zaintzaren lana egitera baldintza prekarioetan eta esplotazio egoeran.

Erdibideko irtenbidea bilatu nahian, mugimendu feministak proposatzen du zaintzaren lanak zerbitzu publikoek bere gain hartu beharko litzaketela. Oinarrizko bi kontraesan ikusten ditut: lehenengoa, eremu publikora ekarrita

ere, sistema ekonomikoa aldatu ezean, zaintza lanak emakumeen eskuetan jarraituko du; eta bigarrena, komunitatearen erantzukizuna eta gai horren inguruan dagoen "zor soziala" desagertu egiten dira.

Bi kontraesan horietan agian beste arazo sakon bat ager daiteke: hazkundera kontrolatua zaintza eremuan ere aplikatu beharra. Hau da, beharbada utzi behar diogu pentsatzeari zaharren, mendekotasuna dutenen eta umeen zaintza komunitate gisa ez zaigula egokitzen. Agian orain arte askok daukagun bizimodua, etengabeko kontsumoan murgildutakoa, aldatu beharko litzateke, eta denbora eta baliabide gehiago gure ondokoan zaintzan inbertitu.

Hauteskunde kanpainaren ondoren argi geratu da, nire ustez, alderdi politikoek ez dutela halako eztabaidan sartu nahi, eta, beraz, sindikatuek eta mugimendu feministak beren gain hartu beharko dutela. Datorren greba feminista, horren adibide.

Alternatibak landu behar ditugu eta, nire iritziz, argi geratu behar da sistema kapitalistan zaintzea eta bizitzea bateraezinak direla. Horregatik ezinbestekoa da zaintzaren iraultza. ●



17 euskaltegi, eskaintza zabala eta dirulaguntzak

Euskarari baietz

Matrikulazio epea zabalik euskaltegietan!



B

Bilbao

SEGURTASUN ARAZOAK EUSKAL HERRIAN?

Segurtasuna modan dago, segurtasunak saltzen du: EAEn 2020an %40 igo ziren etxebizitzetako alarmentak. Segurtasunaz eta, batez ere, segurtasun ezaz hitz egiteak botoak ematen ditu: orain EH Bilduk ere "ordena publikoaz" nahiz "polizia ereduaz" hitz egiten du, eta oso emaitza onak lortu ditu hauteskundeetan, independentziarekiko babes soziala inoizko txikiena den arren. Segurtasun gaiek audientzia zabala dute: *El Diario Vascon* azken hiru urteetan bakarrik ia 40.000 sarrera aurki daitezke "segurtasun" hitza bilatzen badugu. Baina horren herrialde arriskutsuan bizial gara? Eta are garrantzitsuagoa, nola neurtzen dugu "segurtasuna"? Zein fenomenoren intzidentziaren arabera ulertzen dugu jendarte bat segurua den ala ez? Gaiaz hausnartzeko apunte batzuk bildu ditugu.

 MIKEL EIZAGIRRE

Segurtasun ezaz hitz egiten denean, normalean, jabetza pribatuaren eta pertsonen aurkako delituekin lotu ohi da, sarri biolentziaren erabilera tarteko: hilketak, bahiketak, lapurretak, erasoak, bortxaketak, eta abar. Fenomeno horien intzidentziaren datuekin Delinkuentzia Indizea moduko adierazleak kalkulatzeko dira nazioartean, herrialdez herrialde.

Gertakari eta herrialde zehatzei erreparatuta, Amerikako Estatu Batuetan (AEB), adibidez, 2020an 7,8 homizidio erregistratu ziren 100.000 biztanleko, 21.000tik gora orotara. 1995etik zifrarik altuenak izan ziren, baina ez inoizko altuenak. 1980ko hamarkada hasieran 10 hilketa zenbatzera iritsi ziren 100.000 biztanleko. Suzko armekin 2020an eragindako hildakoak 6,1 izan ziren 100.000

biztanleko. Bada, Espainiako Estatuako 2021eko homizidio-tasa orokorra (ez suzko armekin eragindakoena) 0,61ekoa izan zen 100.000 biztanleko. Eta horren barruan, Hego Euskal Herriko lau lurraldeek tasarik txikienetarikoak erregistratu zituzten. Espainiako Barne Ministerioaren arabera, EAEn 0,51 hilketa izan ziren 100.000 biztanleko eta 0,30 Nafarroan. Ideia bat egiteko, EAEn 2022an 14 hilketa izan ziren guztira, 2.190.000 biztanle pasatxo artean. Horrek esan nahi du EAEk AEBen hilketa-tasa bera izango balu, urtean 160 pertsonatik gora izango liriatekeela homizidio mingarrien edota hilketen biktimak.

Ikusi dugunez, estatubatuarren artean suzko armekin eragindako sei hildako ingururekin bizi dira 100.000 biztanleko. Irudikatu dezakegu zer izango litzatekeen Donostian urtero tiroketen ondo-

rioz ia dozena bat hildako izatea eta 20 inguru Bilboren kasuan? Horri gehitu hildakorik gabeko tiroketa guztiak. Ideia bat egitearren, joan den urtean AEBetan suzko armen ondorioz zauritutako 38.550 pertsonekin bakarrik 100.000 biztanleko 11,39ko tasa kalkula daiteke. Tasa hori gurera ekarrita, urtero tiroz ia 21 lagun zaurituko litzukete Donostian. Gero, zauriturik gabeko tiroketa guztiak leudeke.

Batek baino gehiagok pentsa lezake AEBekin konparatzerakoan muturreko kasu bat hautatu dugula, baina ez da hala. Nahi izanez gero, AEBetakoak baino askoz zifra beldurgarriagoak ere aurkeztu daitezke. Mexikon 2021ean 28,37 homizidio zenbatu ziren 100.000 biztanleko, 33,46 Nigerian eta 36,69 Venezuelan, esate baterako. Izatez, Andrés López Obrador presidentearen agintaldiko lehen bi urteak Mexikoko historia garai-

kideko bortitzenak izan direla baloratzen da: 2018 eta 2019 artean, ia 70.000 lagun erail zituzten. Hori 1964 eta 1975 artean Vietnamen hildako soldadu estatubatuarren kopurua baino askoz altuagoa da.

Heriotza bortitzekin jarraituta, munduko daturik onenetakoak dituzten herrialdeen gainetik ere badago Euskal Herria: hemengo homizidio-tasak askoz baxuagoak dira Kanadakoak (1,97), Finlandiakoa (1,64), Belgikakoa (1,69), Frantziakoa (1,35), Suediakoa (1,23), Danimarkakoa (0,95) eta Irlandakoa (0,69) baino. Ondorioz, ikus daiteke Euskal Herria munduko tokirik lasaienetakoa dela hilketei dagokionez.

Antzeko zerbait erakusten du *Global Peace Index* edo Bakearen Indize Globalak. Adierazle horrek termino orokorragoetan neurtzen du arriskua, "herrialdeetako barne-gatazka, gerra eta biolentzia-mai-

lari" begira. 2022ko *Global Peace Index* txostenaren arabera, Espainiako Estatua 29. postuan dago 163 herrialde seguruen artean, eta gogora dezagun Hego Euskal Herriko lurraldeak betiere Espainiako Estatuko lasaienetakoa direla delituen eta biolentziaren arlo guztietan.

Bahiketei dagokionez, EAEn zazpi izan ziren 2021ean; 0,3 bahiketa 100.000 biztanleko. Mexikon urte berean 1.020 lagun bahitu zituzten gutxienez, 0,8 bahiketa 100.000 biztanleko. EAEn Mexikoko bahiketa tasa bera izango balu, urtero hamazazpi bahiketa inguru egongo lirarteke. Eta hori aipaturikoa ez zela Mexikoren urterik okerrenetakoa izan. Mexikon, batez beste, 115 bahiketa izaten dira hilean, 27 astean eta lau egunean. Nazio Batuen Erakundeak oso behetik jotako estimazio baten arabera, 1964 eta 2022 artean gutxienez 100.000 pertsona

inguru desagerrarazi dituzte bertan, eta horien %97a 2006tik aurrera zenbaturiko kasuei baino ez dagokio. 100.000 lagun horiek bakarrik, Euskal Herriaren egungo biztanleriaren %3a lirarteke.

DELITU ARINEN KONPARAKETA

Delitu larrienen intzidentzia Hego Euskal Herrian beste herrialde askotan baino baxuagoa dela ikusi dugu, termino absolutu zein erlatiboetan. Baina zer diote delitu arinagoen zifrek? Ikus dezagun zenbatekoa den pertsonen aurkako biolentziarik gabeko delituen intzidentzia.

Espainiako Estatuan, 2013an 100.000 biztanleko ia 600 indar-lapurreta zenbatu ziren, eta 2021ean, berriz, 222. Hots, zortzi urtean heren batera murriztu zen. Izan ere, Europako 2019ko datuekin alderatuta -2020koak pandemiagatik ez baitira guztiz adierazgarriak-, Espainia-



Kalez jantzitako poliziak gazte bat atxilotzen Bilbon, lapurreta baten ustezko egilea izateagatik.



LUIS JAUREGIALITZO / FOKU

Bilboko Udala izan da urteetan segurtasun ezaren eta polizia kopurua handitu beharren diskurtsoa gehien haizatu duen erakunde publikoetako bat.

ko Estatuak “posizio pribilegiatua” duela esan izan da, etxeetan 100.000 biztanleko egindako lapurreta kopuruari dagokionez. 100.000 biztanleko 209 kasurekin, askoz hobeto dago Italia (407), Herbehereak (434), Belgika (515), Frantzia (551), Erresuma Batua (631), Danimarka (643) edota Suedia (732) baino. Austriak (99), Alemaniak (105), Finlandiak (158), Portugalak (208) eta Norvegiak (249) bakarrik hobetzen dute Espainiako Estatuaren tasa. Are, adituek azpimarratu izan dutenez, Espainiako Estatuako etxebizitzetako lapurreten intzidentzia “ezohikoa” da hain turistikoa den herrialde bantentzat. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) 2020an argitaraturiko ikerketa baten arabera, Espainiako Estatu 21. postuan zegoen EBn etxebizitzetan lapurreta gehien zituzten 27 herrialdeen artean. Hala ere, lapurrentegatik kezka handiena zuen bigarren herrialdea zen, baita segurtasun gabezia handiena sentitzen zuen herrialdea ere.

Espainiako Estatuako zifrak erreferentziatzat hartuta eta nazioartekoekin alde-

ratuta nahiko baxuak izanik, Hego Euskal Herrikoak are baxuagoak dira arlo honean ere bai. Securitas Directen Barometroaren arabera, etxebizitzetan eta negozioetan hautemandako intrusioak %1,4a izan ziren EAEn eta %1,3 Nafarroan. Espainiako Estatu mailako perspektiban jartzearen, biztanleria-dentsitate baxueko lurraldeek bakarrik dituzte horiek baino tasa baxuagoak. Kataluniakoak eta Andaluziakoak, berriz, %1,9 ingurukoak dira. Gainera, “indar-lapurretak” diotenean sarrailak apurtzeari eta erakinetan sartzeko bestelako metodoei egiten diote erreferentzia, ez pertsonen aurkako biolentziari.

Bestalde, inolako indar formarik baliatu ez den lapurreta kasuei begiratuta, 2022an 400 eurotik beherako 58.346 lapurreta txiki zenbatu ziren EAEn, hau da, 333 kasu 100.000 biztanleko. Espainiako Barne Ministerioaren datuen arabera, estatu osoan 2021ean 1.040 lapurreta txiki zenbatu ziren 100.000 biztanleko. Gogoan izan behar da Espainiako Estatuak arlo horretan ere ez dituela Europar

Batasuneko zifrarik altuenak, ezta gutxiagorik ere: Suedian 100.000 biztanleko 3.011,22 lapurreta txiki atzeman ziren salbuespenezko 2020 hartan. Danimarkan 2.439,43 izan ziren, Finlandian 2.440,25, Herbehereetan 1.175,09. Ohiko egoera batean askoz gehiago izaten direla pentsa daiteke, eta Europar Batasunaz kanpoko zifrak begiraturaz gero, are altuagoak dira.

Eta droga trafikoa? EAEn 2021ean 1.372 arau-hauste atzeman zituzten droga trafikoagatik, hau da, 62 kasu 100.000 biztanleko. Nafarroan 374 izan ziren, 56,7 kasu 100.000 biztanleko. Alemanian 2020an, salbuespen egoera tarteko, 439,78 izan ziren, 667,11 Finlandian, 536,19 Danimarkan eta 447,97 Irlandan. Zifra beldurgarriagoak ikusi nahi izanez gero, Hego Amerika edo AEBetara begiratzea besterik ez dago.

Laburbilduz, nazioartean segurtasunaren kontzeptu problematiko hori neurtzeko baliatzen diren adierazle gehienak eskuan hartu eta Euskal Herriko kasuari erreparatuta, ondorio berera helden



ECUADOR ETXEA

2023ko martxoan Sos Arrazakeriak egindako elkarretaratzea Bilbon, "miaketak, polizia-sarekada arrazistak, San Frantzisko auzoaren militarizazioa, botere-abusua eta migratzaile, pertsona arrazializatu eta ijitoen kriminalizazioa Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren eskutik" salatzeko.

gara: munduko tokirik lasaienetako batean bizi gara, lapurreta, tiroketa, bahiketara edota labankadez ari bagara.

BELDUR ASEEZINA

Ikusi dugunez, delitu-tasak baxuak dira gure inguruan, ez ordea segurtasun eskaria. Espainiako Estatuko biztanleen %21ak "kalean gauez ibiltzean segurtasun falta apur bat edo asko" sentitzen zuen 2013an, INEren orduko Bizi Baldintzen Inkestaren arabera. Are gehiago, EAEko delituen zifrak Espainiako Estatukoak baino aski baxuagoak izan arren, bertako biztanleriaren %5,7ak gauez kalean ibiltzean "segurtasun falta handia" sentitzen zuen, Espainiako Estatuko batez bestekoaren %5,3aren aldean.

Espainiako Estatuan 2014an "hiritar segurtasunaren" inguruko inkesta bat egin zieten 30 eta 65 urte bitarteko 2.000 pertsona baino gehiagori. %77ak erantzun zuen "gaizkileen aurkako legea gogortu behar dela". Zentzu berean, hamarretik seik uste zuten "Polizia kopurua eta ekipamendua areagotu behar zela". %32ari espazio publikoetan "kamerak instalatzea" aterabide egokia iruditzen zitzaion.

Baina zenbatekoa da dagoeneko presentzia poliziala Espainiako Estatuan? Eta Hego Euskal Herrian? Lurralde Politikako Ministerioaren 2021eko datuen arabera, Espainiako Estatuan 310 polizia agente zeuden 100.000 biztanleko, Espainiako Polizia eta Guardia Zibila bakarrik zenbatuta. Eurostaten arabera, 2019an EBko hamabigarren postuan zen Espainiako Estatuak, biztanleko polizia agente gehien zituzten herrialdeen artean. Hori gutxi balitz, Hego Euskal Herriko kopuruak guztiz desproporzionatuak direla ikus daiteke: 2018an, Estatu Segurtasun Indar guztien artean, 750 agente inguru zeuden 100.000 biztanleko. Horren arabera, EAE Europa osoko lurralderik polizialena da, eta hori ETAK jardun armatua utzi ostean %19 murriztu zituztela unitateak.

Lehen esan bezala, arriskuen eta segurtasunaren inguruko irudia oso subjektiboa da, pertsonok segurtasun-baldintzei buruzko ikuspegi desberdinak izan ditzakegulako. Diskurto sekuritarioek badute arazo bat, ordea: "arrisku" gisa aipatzen dituzten fenomenoak zientifikoki neur daitezkeenez, izu moral asko eta asko zifren bidez gezurra daitezke.

Okupazioaren inguruko eskandaluaren kasuan, adibidez, okupazioa "arriskua" dela onartuko bagenu ere, zifrak eztabaidaezinak dira: Espainiako Estatuan 26 milioi etxebizitza zeuden 2022an, 3,4 milioi inguru hutsik. Okupazioari loturiko usurpazio delituen kondenak, aldiz, 4.000 baino ez ziren izan.

Horrek guztiak iradokitzen du errealtate sozialean eta datuetan dimentsio handiko "arriskurik" ez badago, horrenbeste aipatzen den "segurtasun gabezia" pertsonon buruan dagoela, geure beldur irrazionalenetan. Emozio horiez baliaturik, sekuritarismoaren diskurtoak askotariko estrategiez baliatzen dira, arriskua zerbait lauso, ikusezin eta nahasia bihurtzeraino. Osotasun fisikoa eta pertsonen bizitzak larriki zein modu orokortuan mehatxatuta ez dauden herrialdeetan, oro har, "biolentzia" eta "arrisku" terminoekin fribolizatzeak ohitura handia dago. Hau da, segurtasun arazo larriak ez dauden tokian, asmatu egiten dira. Ekintza biolento eta ez-biolentoen arteko muga edota arriskuen tipologia bera desitxuratzen da, esate baterako.

Adibide bikaina da pintaketena. Jende askori ez zaizkio pintaketak gustatzen,



JUANAN RUIZ / FOKU

2016an Alokabidek agindutako etxe kaleratze baten aurkako elkarretaratzea Gasteizko Zabalzana auzoan.

txukuntasunaren eta moralaren konnotazio jakin batzuk tarteko. Baina gauza bat da pintaketak ez gustatzea, eta bestea, oso desberdina, pintaketak ekintza biolentoak izatea. Diskurtso horrek ondorio zehatzak ditu: inoren osotasun fisikoa eta bizitza zuzenean mehatxatzen ez duten ohiko ekintzak biolentotzat jotzen baditugu, kriminal bihurtzen ditugu, inguruan biolentzia asko dagoela pentsatuko dugu eta asaldatzea errazagoa izango da. Iritzi horiek zabaltzearen bidez beldurra berrelikatu egiten da eta jendartea etengabeko zaintza- eta paranoia-egoeretan murgildu. “Segurtasuna adiktiboa da. Inoiz ez dago kamera nahikorik”, dio Jorge Dioni Lópezek *La España de las piscinas* liburuan.

Antzeko logika jarraitu da okupazioa eta egoitzaren bortxatzea nahasteko helburua izan duen kanpaina mediatikoarekin. Baina badirudi egoera okerrera doala, izan ere, “okupak zure etxean sartuko dira ogia erostera zoazen bitartean” sortu zutenen eskutik, “maizter-okupa” edo “*inkiokupa*” dator. Errealitateak ebidentzian utzi du okupazioa (ez usurpazio gisa, ez bizilekuaren bortxatze gisa) ez dela fenomeno orokortua, okupazioaren

inguruko alarma sozialaren hondarrak baliatzen ari dira soberan demonizatutako “okupa” hitza hartu eta maizter pobrearen aurka erabiltzeko. Alokairua ordaintzeko zailtasunak dituen familia pobrea jada ez da hori, *inkiokupa* bat baizik; kriminal bat, polizia konpondu beharreko arazoa. Sekuritarismoak ulermen marko berriak ezartzen ditu alokairuen krisiaren balizko eztanda baten aurrean. Hemendik aurrera, maizter oro okupa bat da potentzian.

BESTELAKO JOERAK

Delitu tasa baxuak izan arren, batek baino gehiagok argudiatu dezake azken hamarkadan kopurua areagotu egin dela, eta hein batean egia da. Baina zenbateraino? Zein delitu motatan? Izan ere, igoera ez da tipologia guztietan eta modu homogeneoan gertatu: EAEn, adibidez, 2012 eta 2021 artean, etxebizitzetako lapurretak eta droga trafikoa izan dira igo direnak. Biolentziarekin egindako lapurretak, berriz, nabarmen jaitsi dira. Baina badira oso bizkor eta modu esponenzialean hazi diren beste delitu mota batzuk, jendartean apenas ez dutenak izu moralik eragiten. Arra-

zakeriaz, xenofobiaz, indarkeria matxistaz eta LGTBIQ kolektiboaren aurkako gorrotoaz ari gara, noski. EAEn 277tik 435era igo dira zenbatutako gorroto delituen kasuak 2021 eta 2022 artean, %57ko igoera urtebete eskasean. 231 kasu, guztizkoen %52,03, eraso arrazista eta xenofoboaren multzoari dagokio. Bigarrenik, sexu orientazio eta identitatearen aurkako erasoak daude, 96 kasuarekin (%21,62). Beste 68 eraso generoari dagozkion gorroto delituak izan dira (%15,32). ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

NAFARROAKO ESTATU NAGUSIAK DONAPALEUN

500 urteren ondoren, oroimena eta hizkuntza bizirik

1523ko abuztuaren 18an, Henrike II.a Nafarroako erregeak Estatu Nagusiak deitu zituen Donapaleun. Gaztelaren eraso eta konkistaren ondoren, Nafarroa Behereko lurraldera mugaturik geratu zen erresumak bere egiturak bizirik mantentzeko azken saiakera izan zen hura. 500 urte geroago, gertaera hori gogoratuko dute, Amikuzen euskara sustatzeko lanean ari den Zabalik elkarteak, Nabarralde eta Hernani Errotzenek.

URKO APAOLAZA AVILA

Nafarroako Erresuma Noingo gudu galduta zela edo Amaiurko gazteluaren aurrietan lurperatuta geratu zela diote historia liburuek. Eta hein batean hala izan litekeen arren, ezin uka irau ez zuenik. Henrike II.ak Pirinioen hegoaldean zituen egitura berak antolatu nahi izan zituen Nafarroa Beherean, Donapaleu edo Iriberriz zaharra hiriburua zuela. Aurten bete dira 500 urte 1523ko abuztuaren 18an Nafarroako Estatu Nagusiak egin zirela herri horretan, Nafarroako gorkeen antzeko zerbitzu; bertan bildu ziren Nafarroa Behereko jauntxoak ez ezik, eliz agintariak eta herrietako ordezkariak ere, euren legeak errespetatzearren truke Albretokoari fidesuna zin egiteko.

Gertaera hori gogoratzeko besta berezia egingo dute Donapaleun irailaren 9an, Zabalik elkarteak, Nabarralde fundazioak eta Hernani Errotzenek antolatuta, Donapaleuko Herriko Etxeko laguntzarekin. Hitzaldi zikloak, oroimen ekitaldia, bazkari herrikoia eta abar izango dira. “Memoria ezabatua izan dugu osoki, eta bilatzen hasi orduko, he-

men toki eta gertakari garrantzitsuak izan direla ikasten dugu”, azaldu dute eguna aurkezteko prentsa dossierrean.

NAFARROAKO KONKISTAREN BESTE ALDEA

Gaztelak 1512an Nafarroa inbaditu zuenetik, Nafarroako errege-erreginen kausaren aldekoak birritan saiatu ziren euren erreinua berreskuratzen, baina behin eta berriz egin zuten topo inbaditzaileen hagin zorrotzekin. Hala, Pirinioen iparralderantz zeuden lurraldeak

ezinbesteko izan zitzaizkien babesa biltzeko. Geografikoki estrategikoa zen eremu horretan, Carlos V.a enperadore espainiarraren aldeko nobleek Nafarroa guztiz bereganatzeko egin saiakerak antzuak izan ziren beti, izan bortuetako neguaren gogorragatik edo atzeguardia defenditzeko ezintasunagatik.

Hala gertatu zen 1521ean, maiatzean altxatutako nafarrek Noainen porrota jazo ondoren askok Donibane Garazira ihes egin zutenean. Haien atzetik, milaka soldaduk osaturiko gudaroste espainiarrrak –tartean Bizkaiko eta Gipuzkoako jende asko ere bai– Pirinioak gurutzatu eta hiribildua asaltatu zuten. Guarnizio nafarra sarraskitu zuten eta Joanikot Arberoa kapitainari heriotza krudela eman zioten denen eskarmenturako. Baina atzera, gaztelarrek gotorlekua errauts bihurtu eta Iruñera itzuli ziren, ezinezkoa zitzaielako plaza hartan geratzea.

1523ko udan egoera antzekoa zen. Urtebete lehenago, Amaiurren Nafarroako erregearen aldeko azken legitimistak erori ziren, espainiarrek gaztelu mitikoa airean leherrarazi zutenean. Gainera,



Donapaleuko moneta etxean jaulkitako Nafarroako Erresumaren txanpon baten bi aldeak.



Nafarroa Beherean ia ehun urte gehiagoz iraun zuten Nafarroako Erresumak bizirik, eta bere egitura propioak antolatatu zituen lurralde txiki horretan. Irudian, Joan Blaeuren 1665eko Atlas maior laneko mapa baten zatia.

Noingoaz geroztik errepresio basatia ezarri zuten susmopean zegoen nafar jauntxo eta herritar ororen kontra. Henrike II.a Albretekoa Biarnon zela, iparraldeko bere lurraldeak defendatzeko tropak biltzen hasi zen, jakitun Carlos V.a prest zela berriz eraso jotzeko, Frantziako errege Francisco I.arenkin zuen lehiaren barruan. Baina horrez gain, ikusita Nafarroa Garaia berreskuratzea zail izango zuela, Nafarroa Beherean erresumaren egiturak antolatzen hasi zen; testuinguru horretan deitu zituen Estatu Nagusiak Donapaleun.

“Henrike II.ak praktikan zerotik hasi behar izan zuen”, dio Peio Monteano historialariak *Dos destinos para un reino* (“Bi patu erresuma batentzat”) liburuan. Bere esanetan, ordura arte Baxenabarreko jauntxo eta prelatu oso gutxik hartu zuten parte nafar instituzioetan, eta beraz, lehen aldiz izendatu behar izan zituzten. Lehen bilera abuztuaren 18an egin zen Jondoni Pauloko elizan, eta Bernart Abadia Nafarroako kantzilerrak irakurri zuen monarkaren izenean juramentua: “Zin egiten diot Nafarroako herri guztiari...”, dio gaztelaniazko aktak.

Geroztik Donapaleun bildu ziren Nafarroako erreinuaren administrazio gorenak: Jondoni Pauloko eliza hori bera Nafarroako Kantzileritzako egoitza bihurtu zen; lehendik ere bazegoen moneta etxean, berriz, erreinuaren txanponak jaulkitzen hasi ziren *Henrike, jainkoaren graziaz, Nafarroako errege* leloarekin; auzitegia, espetxea... Horien bidez merkataritza, nekazaritza, zerba eta mugen inguruko arau eta zigor ugari ezarri ziren. Baina asmoa Estatu Nagusiak urtero biltzea bazen ere “oso laster ikusi zen hori bideraezina izango zela”, dio Monteanok.

Gaztelarrek 1523. urteaz geroztik Nafarroa Beherea hainbatetan okupatu zuten. Baina 1527ko urriaren 5ean, tropa nafar eta biarnotarren presioaren ondorioz, Donapaleu azken aldiz arpilatu ondoren ospa egin zuten betirako. Ez ziren gehiago itzuliko.

Gerra luze haren ondorioz, Pirinioetan muga bat ezarri zen, ordura arte ez zegoena –eta gaur egun ere jasaten duguna–. Hala ere, harreman komertzial eta familiarrak bizirik mantendu ziren hamarkada askotan. Aitzitik, erlijio gerrak akuilatuta eta Nafarroako erregea Frantziako errege ere bihurtuta, harreman hori itzaltzen joan zen XVII. mendean. 1620ko Paueko bateratze



ZABALIK ELKARTEA

Loraldia erakusketa jadanik ikusgai dago Donapaleuko Bideak gunean. Horrez gain, konferentziak, bisita gidatua, karrika itzulia, ikusgarria eta besta herrikoia egingo dute irailaren 9an. Horretarako, etxeetako “armairu zokoetan lo dauden” edalontziak biltzeko deia egin dute antolatzaileek.

*Oroimenari loturiko
Donapaleukoa bezalako
ospakizunak “palanka”
bat direla oroitarazi
digu Irigoienek,
“euskaraz erresistitzeko
forma bat”*



1523an Donapaleuko Jondoni Paulo elizan Bernart Abadia nafar monarkaren ordezkariak irakurritako zin egitearen akta.

ediktuarekin Luis XIII.ak –Nafarroako Luis II.a– Nafarroa Beherea, Biarno eta Donezan Frantziako Koroan integratu zituen; frantziarrek lurralde horiek militarki okupaturik zituztela, Estatu Nagusiek ezin izan zuten ezer askorik egin. Nafarroako erresuma independentearen azken hatsak ziren horiek.

ZABALIK ELKARTEA: “BADUGU HISTORIA POTENTE BAT”

“Senegalen eta beste lurralde kolonizatu bezala, Euskal Herrian erakutsi digute gure arbasoak galiarrak zirela, eta Ibañetako guduan sarrazenoek hil zutela Errolan heroia, eta gu Karlomagoren alde ginela. Hori da erakutsi digutena”, azaldu digu antzerkigintzaren munduan ezaguna dugun eta Zabalik euskara elkarteak kide den Mattin Irigoienek. Baina bere esanetan badago duela 500 urteko “historia potente bat” kontakua izan ez dena.



Ezkerreko irudian, behinola Donapaleun zegoen presondegiaren atea. Eskuinean, Jondoni Paulo eliza gaur egun; duela 500 urte hor egin ziren Nafarroako Estatu Nagusiak, Nafarroako gorteen antzeko instituzio edo biltzar bat. Eraikina, Nafarroako Kantzileritza edo administrazio gorenaren egoitza izan zen eta 1620. urtetik aurrera auzitegia edo seneskalaren egoitza ere bai.

Duela urte batzuk Donapaleun egin zen *Deskonkista Egunean* jabetu ziren ezjakintasun handia zegoela gaiaren inguruan, eta geroztik hainbat ekimenetan hartu dute parte. Testuinguru horretan antolatatu dute irailaren 9ko *Nafarroa Bizirik 1523-2023* besta eguna. Egitaraua prest dute eta Loraldia erakusketa martxan da jadanik Bideak guneko aretoan, Nafarroa Beherean urte haietan izandako loraldi kulturala azaltzen duena.

Zabalik 2010etik aitzina lan izugarria ari da egiten Amikuzen euskara sustatu eta berreskuratzeko –Larrun aldizkari monografikoaren 214. zenbakian kontatu genizuen–. Biarnoko mugan euskara azkar galdu zen pasa den mendean: “Belaunaldi batean trantsizioa moztu zen bortizki”, dio Irigoienek. Amikuzeko euskalgintza koordinatzeko ardura hartuta, elkarte horretatik emeki-emeki ari dira “arnas uneak” sortzen eta hizkuntzari buruzko sentsibilizazioa lantzen gau eskolatan, Libertimenduan, Otsail Ostegunak hitzaldi zikloekin edo berrikitan sorturiko aisialdi zentroaren bidez, zeinetan euskararen presentzia eta erabilera lehenesten duten.

Hala, oroimenari eta historiari loturiko Donapaleuko bezalako ospakizunak “palanka” bat direla oroitarazi

digu Irigoienek, “euskaraz erresistitzeko forma bat”. Baina historiak birjabetzearen garrantzia ere azpimarratu du antzerkigileak, bere ustetan hein handi batean hortik baitator hizkuntzaren eta nortasunaren galera, Amikuzeko iraganari begiratu zergo ederki asko ikusten dena.

HIZKUNTZA ETA DUINTASUNA BERRESKURATZEA

Nafarroako konkistaren garaian, Behe Nafarroan 3.000 etxe inguru zeuden, eta ehun leinu baino gehiago –Lüküzeko, Agramonteko eta Domintxaingo jauntxoak buru zirela–. Amikuze zen eskualderik populatu eta aberatsenetakoa, eta Donapaleu hiri nagusia. Etxe askotan eiherak zituztela diote orduko kronikek, zenbait kasutan gaur arte iraun dute euren eiherazainarekin, Jean Claude Mailharin gaian adituak eta Zabalik elkarteko kideak bere hitzaldietan azaldu moduan.

Alta, mendeen poderioz, eta Nafarroako Erresuma desegin ostean, Donapaleu eta inguruak jende eskolatuz eta funtzionarioz betetzen ziren bitartean, eiherak eta ogi leku hoberenak jabe gutxi batzuen eskutan geratu ziren; metaketa eta espekulazio kapitalistaren aitzindaritzat hartzen den fenomeno da hori. Orduan, biztanleen

zati handi bat “etxetiar” klasekoa bilakatu zen, zorretan itota. Erdi Arotik zetorren lege esklabo baten pean bizi ziren maizterrak ziren etxetiarrak: urtero nagusiarekin uztaren erdia negoziatu behar zuten, etxetik kanporatuak ez izateko. Etxetiargoak Bigarren Mundu Gerra ostera arte iraun zuen Amikuzen, nekazarien %60 baitzegoen egoera horretan.

Zabalik elkarteko kideen hipotesia da legeak aldatu eta maizterrek lurrrak erosi ahal izan zituztenean –besteak beste artoa modu industrialean ekoizteko–, jauzi hori frantses modernitatearekin lotu zutela askok, eta euskararen transmisioa eten zutela, beste klasekoak izatearen iragan hori ezkutatu nahian. “Gure legeak, gure hizkuntza, gure gorroteak genituen eta ezabatuak izan ziren”, Irigoienek. Baina harrituta azaldu da, “su txiki bat” badelako oraindik bizirik: “Kontua da horren gainean nola ufatzen dugun, gure konplexuak gainditzeko eta duintasuna berreskuratzeko”.

Historiako orrialdeetatik desgerrarazi nahi izan badute ere, duela 500 urte nafar erresumak bizirik iraun zuela gogoratzea litzateke lehen urratsa, eta hala egingo dute Donapaleun, euskaraz eta muga inposatuena gainetik. ●

“ ”

Txiletarrok gara mundu osoaren elektrifikazioa ordainduko dugunak

Mari Paz Aedo Zuñiga

"Egun on" baino gehiago "larrialdi" hitza erabiltzen dugun honetan, Mari Paz Aedoren hitzek lagunduko dizute ikasturte honetako zure utopien lanketei gogotsu eta pozetik ekiten. Txilen, Santiagon jaio zen duela 45 urte. Gatazka sozioekologikoak aztertzen ditu Energia eta Ekitatea Behatokian eta Txileko Analisi Sozioambientalen Zentroan. Latinoamerikako Trantsizio Justuaren Proiektuan parte hartzen ari da. Euskal Herrian izan da uztaila amaieran Sañu Bizirik taldeak deituta, eta Azpeitiko Matadeixen hitz egin genuen berarekin, eguzkiak goxatutako goiz hartan.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Euskal Herrian gobernuek eta enpresek energia berriztagarrien ahalik proiektu handi gehien ezarri nahi dituzte landa eremuetan. Zure esperientziatik, nola ikusten gaituzu? Txarrerako harritu nau baina ez dakit zergatik harritu behar nauen enpresek modu berebean jokatzek hemen eta Latinoamerikan. Bada premisa eztabai-daezin bat: "Proiektu hauek egin egin behar dira bai ala bai, bestela hondamendi klimatikoan sartuko gara". Benetan, dagoen irteera bakarra korporazioen trantsizio bat al da?

Denak daude adi ea nola ordezkatu daitezkeen erregai fosilak, eta hori gezur handi bat da: erregai fosilak ez dira ordezkagarriak, ez dago elektrifikazio tasa nahikorik. Ez da erreala, ez da gertatuko. Egin behar dena energiaren eskari eta kontsumoak aztertzea da, eskaintza soi-

lik begiratu beharrean: dena konpondu nahi dute energia eskaintzaren ikuspegitik.

Larriago iruditzen zaidana da Espainiako Estatuko erakundeek eta legediek duten ahultasuna proiektu hauei aurre egiteko.

Proiektu hauek denak eredu global baten baitan daude pentsatuta, eta ez doaz bertako komunitatearen eta ekosistemen mesedetan. Alderantziz, pentsatuta daude interkonektatutako Europako sare horretan gutxi gorabehera betikoa egiten jarraitzeko, eredia bera ukitu ere egin gabe. Horrek, ezinbestean, galbidera garamatza. Dugun arazoa ez dugu konponduko milaka haize errota eraikita.

Posible da benetako trantsizio energetiko bat egitea eredu ekonomikoa aldatu gabe?

Logika kapitalistak ez ditu kontuan hartzen ekoizpen kostuak eta ingurumen kalteak, eta horiek traba gisa ikusten ditu. Kapitalismo berdearen logika nahiz eta saiatzen den kontabilizatzen kostu eta kalte horiek, ez du zalantzan jartzen oinarrian duen hazkunde etengabearen logika, mugatua den planeta batean. Neurri gabe haztea da krisia eragin duena, beraz, krisia zer konponduko dugu, gehiago hazita "berdean"?

Euskaldunok planetaren beste lur batzuetatik xurgatutako energiez eta materialez baliatzen gara. Zer iruditzen zaizu orain guk gure lurrik zukutu nahi ez izatea?

Poztu egiten naiz, ikusten dudalako eromen kapitalista estraktibista honen aurrean erresistentzia mugimenduak ez direla Latinoamerikan bakarrik pizten.



Estraktibismoaren barruan kolonialitate ezberdinak daude, lurralde bakoitzean. Iparraldearen barruan Hegoaldeak daude eta Hegoaldearen barruan Iparraldeak. Horregatik hitz egiten dugu Ipar Globalaz eta Hego Globalaz.

Eredu globala dela ulertu behar dugu eta eredu honek lekuan leku inpaktu ezberdinak izango dituela estatu moten arabera, arauen indar mailaren arabera, eskubideen errespeturako dagoen tradizioaren arabera... Baina arazo larria dugu, materialak desplazatzen ari garelako lurralde batzuetatik besteetara, biztanleen ehuneko txiki baten kontsumo maila izugarriari erantzuteko. Golf zelaia mar-

“ ” Ingurumenetik bereizita ikusten dugu gure burua, hori da modernitatearen akatsa

txan daude, urik eta energiarik gabeko pertsona asko dagoen bitartean.

Estraktibismoaren molde gaurkotu honetan badira larriak diren bi gai, eta lotuta daude biak: mineralak eta energia

berriak. Txilen ekonomiaren hazkundera eutsi nahi diote, baina nola? Hidrogeno berdearekin eta litioarekin.

Litio ezinbestekoa da bateria guztientzat. Zer ondorio ditu lurraldean litio ateratzeak?

Txilen dago ezagutzen den litio erreserba gehien, nahiz eta horrek ez duen esan nahi horiek guztiak eskuragarri daudenik. Litioa gatzagen azpian dago eta gatzagak eta bertan bizi diren milaka mikroorganismo daude arriskuan. Litioa ateratzeko ur gazia ponpatzen da putzuetara, ura lurruntzen da eta litio hautsa ateratzen da gatz artean. Munduko lurrik lehorrenean ura lurrundu behar al dugu metal hau ateratzeko? Gatzaga hauek ez dira desertuko putzu soilak, elkarlotutako sare bat osatzen dute, arro oso bat, eta ur hauek izateak eragina du gainerako basamortu osoan. Eta basamortuan dagoen masa mikrobiologikoak balio handia du planetarentzat, oraindik ikertu gabe dagoena. Basamortuak bizitzarik gabeko eremu gisa irudikatzen ditugu, eta bizitza handia dago, ikusten ez duguna.

Litio gehien duen herrialdetik nola ikusten da trantsizio energetikoa?

Beti bezala gu izango gara afera ordainduko dugunak, oraingoan mundu osoaren elektrifikaziorako trantsizioa: Txina, Europa eta AEBek behar dute Txileko litioa.

Eta hidrogeno berdea, aldiz?

Gastu energetiko handia duen promesa huts bat da. Energia elektriko demasa behar du energia sortzeko. Horrek esan nahi du eguzki zentral eta zentral eoliko ikaragarriak behar direla, estraktibismoak dagoeneko kaltetutako lurraldeetan. Zertarako? Europari saltzeko. Komunitatean onura ekarriko duela esaten den bakoitzean, agian, ekarriko duen onura izango da eskola bateko proiekturen bat finantzatzea, herriko futbol taldearen kamisetak ordaintzea eta ez askoz gehiago. Ateratzen den energia esportatzeko da edo interkonektatutako sare handietara isurtzeko. Onura ateratzen duena betiko industria da.

Trantsizio energetikoaz asko hitz egiten da baina trantsizio justuaz gutxi. Zuen behatokitik zer diozue?

Trantsizio justuaz ari garenean, ulertzen dugu badirela hainbat dimentsio: ekonomikoa, soziala, kulturala eta ingurumenekoa. Energiaren eztabaida atera egin

behar da dimentsio tekniko-komertzial hutsetik, gakoa ez da sarera kilowattio kopuru bat igortzea. Dena ebaluatu behar da eta begiratu non jarriko den, zertarako, norentzat, nola erabiliko den energia hori...

Lehen lerroan jarri behar dira pertsonen duintasuna eta ekosistemen birsortzea; ez hazkunde jarraitua oinarri duen eredu ekonomikoari jaten ematea, zeinak ez duen inoiz galdetzen nola banatzen den ezer. Energia eskubide gisa ikusi behar dugu, eta lehen lehenik pobrezia energetikoa konpondu behar da. Horren ondoren, energiaren beste erabilera posibleak aztertu daitezke. Adibidez ura, lehenik, ekosistemak eta pertsonak hornitzeko erabili behar da, eta gero ikusiko dugu erabilera industrialerako eta abar izan daitekeen. Horrek eskatzen du bizitzeko, kontsumitzeko eta aberastasuna sortzeko moduak berrikustea. Elkarrizketa hori da guztiaren oinarrian dagoena.

Trantsizio justu batek adostu behar ditu guztien artean zein diren mugak, ongizatea bermatu beharko luke, ondusunen birbanaketa ere bai eta guztien artean kudeatutako ondare komuna sustatu behar luke. Orekatzea da gakoa, zaugarritasunean bizi direnei gutxieneko duin batzuek bermatzea. Dugun arazoa muturreko aberastasuna da, eta garapena ulertzeko dugun modua.

Lur emankorraz zenbakitan hitz egiten da (megawattio, hektarea, prezio...). Zer da lurra pertsonentzat eta bizitzarentzat?

Nor gara gu, zer da pertsona izatea? Ez gara lurrarekiko ezer desberdina. Gu lurrez eginda gaude, eta urez, eta mikrobioz. Ez dut Amalurraren klixera erabili nahi, lurra ez baita beti ama on bat, badi-tu bere zikloak eta batzuetan ez gatzazkio batera axola. Lurrak bizirik jarraituko du, orekari eutsiko dio, eta gu zomorrotan bat gehiago gara. Gu ez gara hain inportanteak.

Bizitza ere ez da inperatibo astronomiko bat unibertso kosmikokoan. Unibertsoa dago eta bertan badago edo ez dago bizitarik. Kontua da guri axola al zaigun bizitza, bizirik gaudenak gu garelako. Guk preziatu ditzakegu edertasuna, oreka, mugimendua, konplexutasuna. Gaitasun zoragarri hori badugu. Eta ez dakit bakarrak garen, esango nuke ekosistemek ere perzibitzen dituztela. Bada munduan bizitzeko modu bat mundua suntsitu dezakeena, eta alderantziz, zaindu dezakeena.

Zaintza jarriko bagenu erdian... etika

bat jarri behar dugu erdian, ez gauzen esanahi edo definizio bat. Etika hori egon da herri askotan, tradizio askotan, kosmogonietan, eta zientzian ere bai, erakusten duena ez badugu ingurumena zaintzen, gure buruari egiten diogula kaltea. Ingurumena ez da bestea, ezertaz salbatu behar dena... Geu gara! Hori bazekiten Amazoniako herriek eta horregatik iritsi ziren milioika eta milioika arrantzale eta biltzaile izatera lurralde horretan, bazekitelako bertako parte zirela. Gu gaude ingurumenarekin elkarlotuta: arnasten dugun airea da, jaten dugun janaria da, gure bizikideak dira animaliak eta izaki guztiak: harriak, airea, ura... Hori guztia gure zati ere bada. Ingurumenetik bereizita ikusten dugu gure burua, zerbait ezberdina bagina bezala. Horra modernitatearen akatsa.

Herritarrok hautatzen ditugu ordezkari politikoak, baina eguneroko bizitzan pisua duten erabakiak multinazionalak hartzen dituzte, eta hauek hil egiten dituzte bere proiektuei aurre egiten dieten militante eta kazetariak. Mafia horien aurrean, zein dira etorkizun burujabeago baterako oinarriak?

Pare bat gauza soilik ikasi ditut: ez dela askatu behar; eta bestalde, ez dela espektatibetan kateatu behar.

Paradoxikoa den zerbait egin behar da: ez askatu eta deskantsatu aldi berean. Ezin da aritu buru belarri borrokan, erre gabe. Beharrezkoa da atseden hartzea, oinarritzko gauzak dira. Eta aldi berean beharrezkoa da ez askatzea, erresistentzia, dena lur errea izan ez dadin gogoari eustea eta zaintzea. Agian hori da haurrak zaintzen ditugunean egiten duguna: ez askatu eta atseden hartu aldi berean. Ingurumen borroka bat horren oso antzekoa da.

Espektatibetan ez dela kateatu behar esan duzu...

Gauzek beti harritzen gaituzte. Dena izan daiteke amesten genuena baino askoz ederragoa. Tabanera de Cerraton (Gaztela Leon, Espainia) egon nintzen: berreskuratutako herri bat da, artistak joan ziren hara bizitzera eta festa ederra egin genuen gau berandura arte, luze hitz egin genuen... Horrelako espazio batekin amestu izan nuen askotan eta saiatu ere egin nintzen Txilen baina zaila da, auzoek baliabide gutxi dituztelako eta narkotrafiko asko dagoelako. Baina Tabaneran



gertatzen ari zen nik noizbait amestu nuena. Seguru ez dela perfektua, seguru jendeak arazoak dituela, baina sorpresa zoragarria izan zen. Eta bestalde, ez nuen esperoko berriro egongo zirenik frankistak eta pinochetistak gobernuetan. Bizitza horrela da, planifikatzeko oso arraroa, ehun urte barru zer izango den nork daki! Baina aldi berean, uneoro ari dira arrakalak gertatzen, amesten duguna eta gertatzea nahi duguna uneoro ari da zirrikietatik sartzen. Oraina indar handiz bizi behar dugu.

Silvia Federicik bere liburu batean aktibismo gozagarriaz dihardu eta erabat ados nago: badira aktibismo tristeak eta badira gozagarriak. Aktibismo tristeak beti daude perfekzioaren utopian, gertatzea nahi dudana eta inoiz gertatzen ez den horretan, eta gertatzen ez denez, sistematikoki frustratzen noa eta ezin dut inor ilusionatu, beti oso borroka garra-tza eta gogorra delako. Eta egia da gauza asko direla garratzak eta gogorrak, baina

Deabruaren abokatua



“ ”

**Kapitalismoak
sortzen duen irudia da
etorkizuna
arrisku bat dela**

“ ”

**Oraina indar handiz
bizi behar dugu**

fokoa hor bakarrik jartzeak egiten du beti oso jende talde txikia izatea, nahiko jende mingotsa, eta gehiagorengana ez iristea. Bada aktibismo gozagarri bat, Tabanera de Cerratón ikusi nuena: bai, ados, dituz-

ten pribilegio guztiekin, zeren eta leku zoragarrian daude eta artistak dira, baina ez dira pribilegioak bakarrik, espiritu bat ere bada, gauzak modu batean egiteko gogoak dira, aukera ematen digutenak gaur egunean zerbait gozatzeko, leku bat izateko indarrak hartzeko...

Beldurra ematen du etorkizunaz pentsatzeak.

Oso momentu zailean gaude, atzerakada garaian. Duela urtebete nire herrialdearekiko maitasun erromantikoa bizi nuen, eta ez nintzen konturatu ilusiozkoa zenik: garai hartan itxaropen handia genuen lehenbiziko konstituzio neoliberala izan zena eraisteko, eta dena berriz sortzeko. Galdu egin genuen. Eta ez desinformazioagatik bakarrik, baita ere galdu genuen egiatan ez garelako gehiengo. Halaxe da. Askoz errazagoa eta erosoa da egiten ari garena egiten jarraitzea. Horretan, ezkerren senaren kontrakoa da, eta ekologismoa ere bai: esaten digute

Erantzun energia berriztagarri erraldoiak jarri nahi dituzten enpresek eta gobernuek egiten dituzten promesei:

“Energia garbia”.

Zer esan nahi du garbiak? Ez duela karbonorik isurtzen? Ados. Eta nondik ateratzen da azpiegitura horiek eraikitzeko materiala? Hegaztiak hilko ditu, hori garbia da? “Berde” hitza erabat manipulatu ta dago: “berde” gisa ulertzen ari gara deskarbonizazioa soilik. Baina beharrezkoa da ekoizpenaren ikuspegi osoa izatea.

“Aberastasuna. Energia behar dugu industria ez geratzeko, eta industriak sortzen duen aberastasunari esker, zerga bidez, eusten diegu ongizate gizartearen oinarrizko zerbitzuei”.

Altzairu industria indartsua duzue. Zertarako da altzairu hori? Ez litza-teke egokiagoa arma industria berrikustea? Armagabetzea bultzatu dezagun, horrela ez dugu hainbeste energia beharko altzairugintzarako.

Ez al dago beste modurik aberastasuna sortzeko? Denok ordaintzen ditugu zergak, ezta? Badaude beste ekonomia jarduera batzuk. Hemen, lehenik, lurraldearen elikadura burujabetza dago arriskuan.

“Klima larrialdia gutxitzen laguntzen dute”.

Noski utzi behar diegula energia fosilak erabiltzeari. Baina bestelako modu asko daude arazo honi aurre egiteko. Etxeetan pentsatu behar da, jendea ongi bizi dadin, eta horretarako aukera asko daude.

Maila globalean, energia berriztagarri guztiak ez dira arazo, eskala da arazoa. Eskala industrialaren eta bideratuta dagoenean pertsonen ongizatea ez den bestelako behar batzuk asetzea, kuestionagarria da. Arazoa ez da haize errota, bere horretan.

“lagun, hainbat gauza aldatu behar ditugu”. Eta gizakiok, defektuz, azkena nahi duguna gauzak asko aldatzea da.

Kapitalismoak jarraikortasunaren ilusio bat saltzen digu, baina aldi berean alerta egoeran mantentzen gaitu eta guztiari bakoitzak bakarka egin behar dio aurre. Horregatik, ematen duen irudia da etorkizuna arrisku bat dela, eta beraz, norberak edozein prezioztan ziurtatu behar duela jarraikortasuna: gure bizitzaren jarraikortasuna, gure bizi estandarrena, gure kontsumo ereduena, gure ongizate ideiena... Horregatik du arrakasta faxismoak, eskala handian eskaintzen duelako jarraikortasuna: polizia gehiagorekin, segurtasun ideiekin eta beti etsai bat sortuz, beste gizatalde bati leporatuz bera dela jarraikortasuna kinkan jartzen dizuna: lesbianak, migranteak... Horiek dira mehatxua, beraz, zuk, zure bizi jarraikortasunerako bide bakarra jarraitu behar duzu. Eta hori oso erakargarria da, zalantza beteriko mundu honetan bide bakar bat nahi baitugu, segurua. Eta ezkerrekook, aldiz, hor goaz esanaz “zer iruditzen iraultza bat?”. Jendeak ez du hori entzun nahi, “deshazkundera” bezalako hitzek apokalipsia dakarkiotte burura.

Jendeak ez du "deshazkundera" entzun nahi baina ezin da orain arteko bizimoduarekin jarraitu...

Kontua da nola egiten dugun gure etorkizun posiblea erakargarria eta segurua izan dadin. Jendeak segurtasun behar gorrria du. Zerbait eskaini behar dugu, egungo egoera baino are latzagoa izango ez dena. Horregatik da garrantzitsua oinarritzko beharrak zein diren berrikustea: Frantziako Tourra Euskal Herrian hastera ez da oinarritzko behar bat. Behar ditugun segurtasunak beste batzuk dira: ongi jan ahal izatea, ura, energia, eta etxe duin baten behar dituen oinarritzko gauzak.

Ekologiatik etorkizunera begiratuta, dena dago gaizki, ekoantsietatea sortzen du. Elkar zaindu behar dugu eta babestuta sentitzen garen espazioak izatea beharrezkoa da, Azpeitiko Matadeixe bezalakoak: horietan bai, proiektatu dezakegu etorkizun bat. Gaur egun egiten dugun edozer gauza da hazi bat etorkizunerako. Orain egiten dudanak agian hamar lagun artean du eragina baina ehun urtean zentzu komuna bihur daiteke. Pentsatzen badugu “kito, ez dago ezer egiterik”, horixe da etorkizunerako ereingo duguna. Gaur egiten dugun edozer gauzak jarraituko du izaten etorkizunean. Hori badakigu, kontziente ga-



“ ”

***Etxea erretzen ari da
baina gaur bizirik gaude,
horretan hartu behar
dugu indarra***

“ ”

***Dugun arazoa
muturreko aberastasuna
da, eta garapena
ulertzeko modua***

renean guztiarekin elkarlotuta gaudela. Ez gara norbanako bat, ez gara hondar ale bat hondartzan, hondartza osoa gara, jende pila baten arbaso gara (biologiko izan edo ez), eta aurrekoen herentzia gara. Ederra da bizitza honetan elkarlotuta gauden hariak garela ikustea, ez norbanakoak.

Eskertzen da hitz egiterakoan dituzun umore eta baikortasuna, ez dago giro.

Egia da, Greta Thunbergekin dioen beza-

la etxea erretzen ari da (erraza da hori Suediatik esatea, baina esan egin behar da). Egia da, indikatzaileak beldurgarriak dira, giza eskubideen bortxaketak gero eta gehiago dira. Baina gaur bizirik gaude. Hori da daukaguna. Horretan hartu behar dira indarrak, gaur baditugu leiho txiki batzuk, eta hemen gerra galtzen bada agian egongo da beste herri bat hemengo borroka erreferente izango duena eta han jarraituko du borroka.

Munduak aldi berean gertatzen dira: egongo dira lurraldeak salbu egongo garenak, adibidez, Tabanera de Cerrato, ikusiko da noiz arte. Egongo dira lurraldeak suntsituz joango direnak, adibidez latinoamerikar lurraldeak, zeinetan estraktibismoak aurrera jarraitzen duen etengabe. Eta egongo dira erresistentziak posible diren lurraldeak, adibidez, Euskal Herria. Dena batera ematen da. Eta hori jakitea beharrezkoa da, ez sentitzeko dena oso gaizki dagoenik, edo dena zoragarria denik. Konplexutasun hori ulertzen badugu, atsedean hartu dezakegu, dena ez dagoelako norberaren ardurapean. Hemen niri ez bazait ongi irteten, lasai, seguru badagoela Nami-bian, Kongon edo Txinan borroka berean ari den neska bat, ongi doakiona. Beti egongo da norbait, eta beharrezkoa da sentitzea ez gaudela bakarrik, zerbaiten parte garela eta argitxoak pizten goazela etengabe. Eduardo Galeanok zioen denok garela su txikiak... ●

IZPILIKU FINA, LURRIN BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO



GARBIÑE LARREA

Banda eta belar-xuta ere deitzen zaio *Lavandula angustifolia* sendabelarrari, bai, ondo esan dut, sendabelarra baita nahiz askorentzat lurrin gozo edo aire girotzaila soila den oraindik ere. Izpiliku finak errenkadan landatutako soroen argazkiak topatuko ditugu belardendan, etxerako apaingarrien edozein dendatan eta baita farmazian ere. Autolaguntza liburuaren azaletan eta psikologia aldizkarietan ere sarri ikusten da, zerbait esan nahi digu honek. Estetikoki erakargarria da antza eta boladan dago, bai begiz eta bai sudurrez ia gehienek ezagutuko duzuela ziur naiz.

Horrek zaildu egiten du ordea sendabelartzat jotzea. "Nola hartuko dut ba kolonia zaporeko infusioa?", "Ez al dago beste sendabelar erlaxagarriarik, hain ona izan bazen ez zen perfumetarako erabiliko, ala?". Horrelako galderei erantzun behar izaten diet maiz, izan ere behin kategoria batean kokatu badugu sendabelar bat jai dago, ea nola egiten den hortik haratago ere badela ikusarazteko.

Lore helduak olio esentzial asko du, osagai anitzeko olio. Taninoak, azido rosmarinikoa, kumarinak eta fitoesteroak edukitzeak lasaigarria dela esan nahi du, edozein espasmo mota baretzeko gai dela (hesteetakoak barne), zauriak garbitu eta sendatzeko gaitasuna daukala (izen zientifikoa ere hortik datorkio), menopausian hormonak orekatzeko bali duela, buruko, giharretako zein erreumako mina baretzeko baliogarri dela. Lore more lehorraren infusioa hartuta horiek denak baliatzeko moduan gara.

Udan loratzen zaigu eta eguzki betea dugun egunetan eguerdi aldera bilduta lurrin gehiago izango du. Udan hain ohikoak izaten ditugun beherako eta liseriketa arazoentzat gomendagarria da oso. Izan ere, hesteak baretzeaz gain, fermentazioak eragindako haizeak kentzeko ona da, baita duodenoko narritadura baretzeko ere. Gibelarentzat lasaigarri eta behazuna husteko lagungarri ere badenez esango nuke liseriketa aparatuarantz ezagunagoak diren beste asko bezain ona badela.

Infusioa hartu ezin duenarentzat, xaboi edo perfume usaina duela esanez muzin egiten dionarentzat, udan edateko edari freskagarri eta ezberdina proposatuko dut. Litro bat ur, 250 ml izpiliku-fin infusio (postreko koilarakada bat edo birekin egindakoa, aukeran), 250 gr masusta eta gatz pittin bat irabiatu behar ditugu eta hozkailuan eduki ordubetez eta egunean zehar edan, otorduz kanpo. Edaterakoan eragin eta kontatuko didazue zer moduz egin duzuen lo, zelan baretu zaizuen amorrua edo bihotzerrea edo zer nolako freskura ederra sentitu duzuen gorputz osoan.

Bere olio esentziala destilatzeke sa-soia dugu honako hau, Proventzaraino joan gabe Erriberrin ere bada halako lanak ikusteko aukera. Olio honen inguruan uste oker bat zabaldu zen, ginekomiastia (gizonezkoei bularrak garatzea) eragiten zuela. Gaizki egindako ikerketa lauso baten ondorio okerra dela ziurtatu den arren bolo-bolo dabil, interneten egindako edozein bilaketa horren lekuko. ●



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

AHUAKATEONDOA ETA XENOFOBIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ahuakateondoak ondo emango al du hemen? Ezin konta ahala alditan luzatu didate galdera hori azken urte hauetan. Gure etxean ahukate arbola (*Persea americana*) ederki bizi dela erantzuten diet eta Murrikuko kaian hantxe dago arbola bikaina, eta urte asko da aleak ematen dituela. Asturiasera doanari beti gomendatzen diot Porrúa herriko Etnografia Museoaren atarian dagoen ahukateondo erraldoiari bisita egitea, merezi du haren azpian tartetxo bat lasai igarotzea, haren tamainari eta zeureari tamaina hartzeko behinik.

Zer grina piztu du bada ahukateak guregan? Hasteko nobedadezaleak gara, amorratuak. Eta ahukatearen aldeko marketin kanpaina erraldoia ikusten ari gara joan deneko hogeita hamar bat urtean: osasunerako ezin hobea, jateko prestatzen erraza eta batez ere moderno da. Era berean, jan dugun ale horren hezur handitik landare berria sortzea oso erraza da, honela azaldu nuen eguneroko lantxo bat argitzeko sortu berria dugun Telegrameko Bizi Baratzea kanalean, duela gutxi: “Ahuakatearen barruan dagoen hezurra atera, garbitu eta erdi parean zotz batzuk sartuko dizkiogu. Ontzi batean zotz horiekin ertzean eutsiz, haziaren erdiraino ura jarri. 3-4 asterako sustraia azalduko da. Hura 10



Euskal Herrian itsasoaren eragina iristen den lurraldea ezin hobea da ahukateondoak lantzeko.

cm inguru luzatu denean loreontzi batean lurrean landatu, erdia lurpean erdia airean, eta lurrari heze eutsi. Laster zurtoina eta hostoak azalduko dira. Uretan luzeago edukiz gero landarea han bertan sortuko da. Udaberriaren hasieran lurrean landatu”. Aldamenekoak ez duen landare berriren bat gure baratzean izateak goitik beherako zeharbegirada eta ezpain ertzeko barre ttikia sortzen dizkigu, oraindik. Ikusi ere ezin dutenak ere badira; beti izan dira betikoa soilik onartzen dutenak, eta kanpotik datorrena, hori, kanpokoa da. Hor ere badaukagu aberrizalekeria chauvinista dosi galanta, landare xenofobia.

Bada, Euskal Herrian itsasoaren eragina nabarmen iristen den lurraldea ezin hobea da ahukateondoak lantzeko. Dagoeneko batean eta bestean ahuka-

tediak landatu dira eta etorkizun oparoa izango duten traza hartzen diot. Etxean ere lehen aleak aurten izango ditugu.

Gurean giroak laguntzen duen era berean bera lantzen duten beste lurralde askotan kirioak dantzan dituztela dabilta klima aldaketa santu honekin. Ahukateak ur asko behar du eta tenperatura altuegiak alearen ziklo osoan du eragina: estresa sortzen du landarean, arbola kaltetu egiten da, polinizazioa zapuztu, ernaldutako aletxoak erori eta abar. Hemendik urte gutxi batzuetara bertoko informazioa izango dugu eta orduan erabaki ahal izango da ahukateondoak merezi duen ala ez. Eta, agian, xenofoboak gorabehera, mahatsondoak kendu eta ahukateondoak jarriko dira; edo mangondoak (*Mangifera indica*) edo papaia (*Carica papaya*) edo... ●



**HEMEN DAGO
NAFARROA**

Zigilu honen atzean, zapora on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA

TOLOGORRI

ZUKU ETA MARMELADA EKOLOGIKOAK,
HAMAIIKA ZAPORETAKOAK

GARAZI ZABALETA

Familiako baserriari jarraipena emateko apustua egin zuen 2000. urte inguruan Mikel Kormenzana urduñarrak, unibertsitateko ikasketak amaitu eta gero. “Esne behiak zeuden lehen gure baserrian, baina ni sartzean familiako abentura batzuk berreskuratzeko erabakia hartu nuen”, azaldu du. Zein zen familiako abentura hori? Bada, fruta arborei berriz ekitea. Izan ere, amona bere garaian asko aritzen omen zen fruta arbolak lantzen, eta bide hori berriz jorratzen hastea izan zen erreleboaren gakoetako bat. Hurrengo urteetan, esne ekoizpena pixkanaka alde batera utzi eta zukua eta marmelada ekoizteari ekin zioten Tologorri. Haragitarako behiak ere mantendu dituzte, dena den.

**BERTAKO FRUTA ARBOLAK
KONTSERBATZEN**

“Inguru hauetan lehen arbola asko zeuden, eta justu ni hasi nintzen urte horietan baziren Urduñan baratze batzuk fruta arbola askorekin, baina bertan etxebizitzak egin behar zituzten, eta hango barietateak atera genituen mantendu ahal izateko”, gogoratu du Kormenzanak. Zukua eta marmeladak egiteko darabilten fruta gehiena etxekoa dute: gerezia, okarana, sagarra, madaria, zitrikoak, fruitu gorriak... Ez dute azalera oso handia lantzen, baina barietate handia dute. “Gure estrategia ez da inoiz izan asko egitea, baizik eta barietate handia eskaintzea”, gehitu du.

Fruta arbola gehienak baserrian bertan dituzte, baina zitrikoen eta fruitu tropikalen kasuan, Ean dute ekoizpena, lagun batzuek utzitako lurretan. “Erabiltzen ditugun lehengaien zatirik han-



diena gurea da, etxekoa, baina hemen ematen ez duten arbolen kasuan, ahabia edo kiwia adibidez, Euskal Herriko beste ekoizle batzuei hartzen diegu”, azaldu du. Ekoizpen osoa eredu ekologikoan egiten dute.

**ERALDAKETARAKO GUNE
KOLEKTIBOA**

Ekoizpen ekologikoan jende askorik ez zen ari Kormenzanak proiektua abiatu zuen garaian, eta produktuak eraldatze-

ko obradore txikia jarri zuen martxan hasiera hartan. 2010ean, ordea, ekologikoan ari ziren inguruko beste lau baserriarekin batu eta obradorean elkartea sortu zuten: Ekotarro izena du egitasmoak. Herrian bertan beste ekoizleekin sortutako sare horretaz gain, bestelakoetan ere parte hartzen du Tologorri, Nekasarean, EHNE sindikatuan, EHKOLEKTIBOAN eta Bizilurren, besteak beste. “Nekazaritzari lotutako mugimenduetan egotea garrantzitsua da guretzat”, dio.

Salmenta zuzena egiten du urduñarrak, eta azoketan saltzen du ia guztia. Ekoizpenaz eta salmentaz gain, bestelako ekimenak ere egiten dituzte Tologorri. Baserrian bisitak maiz antolatzen dituzte inguruko eskolekin edo udalekuekin, eta COVID-19 garaian gosari agroekologikoak egiten zituztela kontatu du. “Lehen ekologikoaz hitz egitean jendeak arraro begiratzen zigun, baina orain nabaritzen da leku batzuetan kontzientzia sortzen ari dela. Oraindik asko dago egiteko, baina tira, hasi ginenean baino hobeki ikusten dut egoera”. ●

Errekondoren kontsultategia, bai esan?

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Horrela has litezke Jakoba Errekondok herriz herri eskaintzen dituen hitzaldiak. Euskal Herri osoan barrena dabil, 2015ean *Bizi Baratzea* liburua argitaratu zuenez geroztik –aurretik ere eman zuen makina bat hitzaldi–. Liburua argitaratu zuenean aurkezpenak egiten hasi zen, *Bizi Baratzea* zer zen azaldu eta, dena deskubritu gabe bazen ere, bertaratutakoei argitalpenean aurkituko zutenaren berri ematen zien. Gero iritsi ziren, hurrenez hurren, *Altza Porru*, *Etxeko Landareak* eta *Ilargia eta Landareak* urteko lanen agenda.

“Liburuaren –izan *Bizi Baratzea* edo izan *Etxeko Landareak*– nondik norakoak azaltzea zen aurreneko hitzaldi haien muina eta bukaeran kontsultategiari tarte bat irekitzen genion, baina gaur egun gure hitzaldietara gerturaten direnen gehiengoak ezagun ditu gure argitalpenak eta zuzenean kontsultategiari ematen diogu espazioa”, esan digu Errekondok. “Formatua beti bera da, baina aldi berean hitzaldi bakoitza mundu bat da, galdera-erantzunen jokoan sartzen garela”, jarraitu du.

DENETARIKO JENDEA

Larunbat goizetan azken urteetan Euskadi Irratian eskaintzen duen formula bera da; aurrez aurre izatea. Gaia, hitzaldien kasuan ere, librea. Landareetara mugatuta, noski, baina gehiagorik ez. “Tokatu zait lekuren



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

batetik gai zehatz baten inguruan aritzea, baina hala eskatu didatelako eta beraiek ere interes berezia zutelako horretan; orokorrean, ordea, ez dugu landareetatik haragoko zehaztasunik jartzen eta hala kontsultategia irekia izaten da”, azaldu digu usurbildarrak. “Basoan interesa izan dezake batek, baina ondo etor dakioketxeko landa-

reen edo baratzearen inguruko konturik ere”, zehaztu du.

Galderetan bezala bertaratutakoen profiletan ere aniztasuna egon ohi da. “Denetari-ko jendea” gerturaten dela azpimarratu du Errekondok. Kazetariaren kuriositateari erantzunez adierazi du pandemiaren ondoren ez duela profil aldaketarik antzeman eta gehitu du hiritarragoa den eta nekazaritzara eta landareetara hurbiltzen ari den jende horren mugimendua pandemia aurretik hasita zegoela jada.

IKASTURTE BERRIRAKO ZITAK


Asko dira Jakoba Errekondoren hitzaldietara behin baino gehiagotan joa(te)n direnak. Beti zerbait berria edo desberdina entzunda itzultzen baitira. Jarraitzaile sutsua bazara, kontsulta zehatzen bat egin nahi baduzu, sekula Jakoba entzun gabea bazara baina gustura adituko zenukeelakoan bazaude, landareen mundua atsegin baduzu... denek duzue lekua Errekondoren kontsultategian.

Ikasturte berrirako aurkezpen eta hitzaldi ugari ditu jadanik lotuta. Esaterako, irailaren 22an Aiaraldea

Ekintzen Faktorian aurkituko duzu, Laudion, eta hil horren amaieran aurkeztuko dute ere *Ilargia eta Landareak 2024* urteko lanen agenda.

Begiratu hurrengo zitak biziartzea. eus/agenda-n eta horrelako kontsultategi bat antolatzekotan bazabiltzate zuen herri edo auzoan, idatzi solasaldiak@argia.eus helbidera. ●

Erroma salbatu zuten antzarak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Erroma, K.a. 406. Hiriak gerra deklaratu zion Veii herriari, handik 10 milia ingurura zegoen kokaleku etruriarrari. Urte luzez Veii aberastu egin zen, nagusiki gatz merkataritzaren kontrolari esker, pixkanaka erromatarrei itzal eginez. Erromatarrek uste zuten erraz menderatuko zituztela aldamenekoak, baina gatazkak hamarkada osoa iraun zuen. Azkenean, K.a. 396an erromatarrek Veii hartu zuten, Marko Furio Kamilo jeneralaren eskutik. Garaipena ospatzeko desfilea egin zuten hiriko kaleetan. Aurrean jenerala zihoan gurdi gainean eta haren atzetik Veiiin atzemandako harrapakinak: esklaboak, Veiiiko babesle izandako Junoren estatua eder bat beste gurdi batean, eta antzara sakratu multzo bat haren atzetik. Marko Furio Kamilok Kapitolioko muinoan Junoren omenezko tenplu bat eraikitzeko agindu zuen. Jainkosaren estatua han jarriko zuten eta antzarak ere bai.

Veiiarrak mendean hartuta, handik sei urtera, beste mehatxu bati aurre egin behar izan zion Errepublikak; K.a. 390. urtean galiarrak, Breno buru zutela, Erromako ateetan zeuden, hiria hartzeko prest. Erraz sartu ziren eta topatzen zuten guztia birrindu zuten. Baina bizirik atera ziren erromatarrek Kapitolioan babestu ziren eta galiarren hainbat erasori aurre egitea lortu zuten. Brenok orduan gotorlekua gauez eta isilean hartzea erabaki zuen, harresian gora eginez. Txakurrek ez zuten zaunka egin, zentinelak lo hartu



"Kapitolioko antzara sakratuak", Henri Paul Motte, 1889.

zuten, eta galiarrak Kapitolioan sartzeko zorian zeuden. Baina orduan karranka ozen batzuk entzun ziren, erromatar soldaduak esnatu ziren, eta galiarrak atzera egitera behartu zituzten. Junoren antzara sakratuak izan ziren eromatarrek iratzarri eta Errepublika salbatu zutenak.

Biharamunean, tribunoak bildu ziren eta lo geratu zen zentinelak nahiz bere lana egin ez zuten txakur zaindariak Tarpeia harkaitzetik behera botatzea erabaki zuten. Galiarrek setioari eutsi zioten, baina gosea eta gaixotasunak

haiengan ere eragiten hasi ziren eta, azkenean, urre truk, Erromatik alde egitea erabaki zuten.

Handik aurrera, luzaroan, erromatarrek liberazio egun hura ospatu zuten, eta, horretarako, hainbat txakur urkatzten zituzten, arbasoek egindako okerra ordaintzeko. Gainera, Junoren antzarak apaindu eta prozesioan ateratzen zituzten, hiritarrek heroiak bailiran gurtu zituzten. Antzar Egunaren berri izan balute "burutik jota daude lekeitiar hauek" pentsatuko zuten. ●



OMNESVIAE

OmnesViae, Google Maps erromatarra

OmnesViae (latinez, bide guztiak) online proiektua erromatar galtzaden mapa interaktiborik osoena da. K.o. IV. mendeko *Tabula Peutingeriana* ibilbide bilduman dago oinarrituta, galtzadez gain, bidean zeuden ostatuen berri ere jasotzen zuen mapan. Google Mapsen antzera, Inperioko gune batetik bestera

bidaiatzeko bide egokiena kalkulatzeko aplikazioak, 2.000 erreferentzia punturi esker. Horretarako, nahikoa da *Ab* (nondik) eta *Ad* (nora) gelaxkak betetzea eta *Ostendere* (erakutsi) botoian klik egitea. Eta *Fere Dies*-en klik eginda, bidea egiteko zenbat egun behar ditugun ere esango digu. ●



Bizitzako sentimendurik sakonenetan, bakarrik gaude

Xabier Amuriza Zarraonandia

*Monzon-Ganuz*a Euskal Utopikoei Saria jaso zuen martxoan Xabier Amurizak Olaso Dorrea Fundazioaren eskutik, lau urtean eman dioten hirugarrena –Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Lauaxeta Saria dira besteak–. Horren aitzakian bildu, eta aritu gara bere ibilbideaz, martxan jarri berri duen webguneaz –www.amuriza.eus–, bertan eskuragarri ipinitako lanez –nagusiki *Harrien mintzoa* memoria ariketaz–, eta, batez ere, bere bizitzaz, beldurrez eta pozez.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA


Ez pentsa sakrifizio bat egiten dugunik Gipuzkoara joanda; aitzakia horrekin, andreak eta biok eskurtsio polita egingo dugu” emana zuen abisu, eta Igeldoko plazan zitatu gara, ia ausaz, uztaileko astearte lainotsu batean. Herriaren gainaldetik dator oinez Xabier Amuriza (Etxano, 1941), Arantza Plaza emaztearekin batera. Oriotik egin dute Igeldorainokoa, hirigunera autoz sartu behar ez izateko. Elkarrigur t’erdi egin eta argazki saioari ekitearekin bat, autobus geltokirantz joan da Plaza; elkarriketaren ostean elkartuko dira Donostian. Hiru ordu luze ditugu aurre-

tik, baina eseri eta hizketan hasi gara, astirik galtzeke: “Ibilbide luzea dut, oso kuestionatua izan naiz arlo askotan, eta orain, urteak joanda, aitorten batzuk jasotzeak poz handia ematen du”.

Harrien mintzoa memoria liburuko esaldi bat ekarri du hizpidera: “*Zoriona da ideia komertzial bat. Nik poza nahi dut*”. Eta azalpena: “Nik badakit poza zer den, eta poza behar dut bizitzeko; beti behar izan dut, baina orain, erretiraturik, arrazoi pozgarriek biziartzten naute. Eta niretzat poza da, adibidez, gaur hona etorri eta elkarriketa hau egitea”. Azalpenek ez ezik, keinuek ere berresten dute emozio bizikoa dela: pa-

sioz eta kartsu mintzo da webgunean argitaratu berri duen memoria liburua. Bere kontraesanak bistaritzen dituzten 500 esaldi inguru bildu ditu bertan, nolabaiteko paradoxaren bat ezkututzen dutenak, gehienak. Esaterako, pozak bezainbat kolpatzen duela tristurak zenbaitetan. “Nahiko aldarte gorabeheratsua daukat. Ilusio handiak egiten ditut, eta gero, araberrako zaputzak jasotzen. Baina dezepzioz dezepzio, pozik bizi izan naiz. Dezepzio baikoitzak itxaropen bat izan du”.

Bizitzako pozaldi puruenak haurtzarokoak ditu. Zerbaitengatik hasten da *Harrien mintzoa* honela: “Ni naiz haur-





tzarora gehi eranskin bat". Oraindik garbi asko oroitzen ditu seminariotik etxera bueltako bidaia haiek, itzulingeruka luzatzen zituenak ahal bezain beste, poza luzatzearen. Eta bazekielako, etxeratzearekin bat, atzera seminario-ira itzultzeko denbora deskontatzen hasiko zela. "Halako sentsazio gozo eta indartsurik gutxi sentitu dut. Geroko pozak ez dira izan hain bakunak, garbiak, hain osagai bakarrekoak. Nik ET filma oso ondo ulertzen dut: etxera eta etxera, ez nuen beste sentimendurik". 11 urterekin sartu zuten, lehenik karmeldarren komentuan, bigarren urtean seminarioan, eta bertan bizi izan zen 24 bete arte. "Nerabezaroak lileratzen nau, nirearen eztanda barruan gelditu zelako, zain. Agian horregatik gertatzen zaizkit oraindik ere eztanda bozkariotsu horiek; beharbada, nerabezaro permanentean nago".

BIZITZAKO ASKAPENIK HANDIENA

1960ko hamarkada hasiera zen, eta seminarioa ere ailegatu ziren "Gu gira Euzkadiko gazteri berria"-ren oihartzunak. Giro politizatu hartan, Amuriza gaztearen sinesmenak pitzatzen hasi ziren. "Zer oinarri dauka itomen moral

“ ”

Iritsia naiz azken maldara,
eta falta zaidan
denbora mundutik
deskonexio sentimental
batean bizi nahi dut

honek? Zergatik sartzen digute Jainkoa gure kontzientzietaraino? Zergatik obedientziak izan behar du itsua? Zer du euskarak baztertua izateko? Zergatik ezin da politikaz hitz egin?". Bere bizitzako askapenik handiena bezala oroitzen du moralki askatu zeneko unea. "Halako batean esan nuen: nire kontzientzian neu bakarrik nago. Hemen ezin du beste inork agindu, neuk nahi ez badut. Beraz, libre naiz! Segurantz horrek lasaitasun ikaragarria ematen zidan. Handik aurrera hasi nintzen neure buruaren jabe izaten".

Apaiz egin zenerako, garbi zuen Elizaren hierarkiari barrutik aurre egiteko lanean ariko zela. Ordurako,

"transzendentziaren" fedetik libratua zen, baina ez zaio iruditzen inori trairiziorik egin zionik: "Jendeak sinesten zuena errespetatzen nuen; nik, soilik, laguntzen nien loturak askatzen; kezka moralak gainditzen". Fedearen auzia-transzendentzia-hautzarotik heldutasunera iritsi bitarteko ahultasunen barruan kokatzen du; ipuin arotik adimen arorako jauziaren parte. Ez du Jainkoarengan sinesten. "Jainkoa bada la sinesteko beste arrazoi dago Jainkoa naizela sinesteko. Fedearen eta erlijioen kontu guztiak heriotzaren eraginetik datoz. Heriotza ezin onartzetik. Ba, zerbaiten amaiera ez da *beste zerbait*, ezabapena baizik. Amaitze soil bat. Gero ere *zerbait* izango garelara? Jakina! Dinosaurioen aroan ere izan ginen *zerbait*. Baina ez kontzientzia bat, konaturatzen dena ni naizela *ni*, eta zu zarelara *zu*. Kontzientzia hori ez bada, beste zernahi guztiak alferrik dira. Sinestekoa al da, hemendik 100.000 urtera, *zu*, *Kepa* eta *ni*, *Xabier*, nonbait, nolabait, elkarrekin komunikatu ahalko garelara, geure memoria guztiarekin, elkarrizketa hau gogoratuz?". Eta hemen bere liburuko esaldietako bat gehitzen du: "Ez dago erlijioak bezalako fikzio-zientziarik".



EZIN PUNTU BARE BAT IZAN

Transzendentziarik ez itxarroteak erabat aldatu zion bizitza, eta aurrez aurre jarri zuen bere bakardadearekin. Zer egin bizitzarekin? Zeri eskaini denbora? Amuriza leku askotara bultzatu du barruak, baina beti amaitu du bere ohiko zereginetara itzultzen. “Bizitza zuhaitz bat bezala da. Bazoaz adar batean aurrera, baina laster amaitzen da bidea. Erori nahi ez baduzu, berriro enberrera zatoz. Gorantz ere, igoera nahiko mugatua daukazu. Egiten dituzu saiakerak, zenbaitetan jakinik laster itzuli behar duzula zeure ibilbide orokorrera. Esaterako, nik asko miretsi ditut idazle edo musikari edo margolari handiak, baina alor horietan ez dut arrakastarik izan. Dohainik ere ez dut izan. Pena itzela ematen dit, adibidez, marrazten ez jakiteak. Artisten zirkuluetan ibili izan naiz, baina ez modu iraunkorren. Arte guztiek erakarri naute, baina azkenean, bertsolari gizajo bat izan naiz”.

Norabide askotara zabaldu nahiak bizipoza eman dio, baina noizean behin eskertuko luke aiseago asetzen direnetakoa izatea. “Bada puntu bare bat bezalakoa den jendea, hainbeste barne gatazkarik gabea. Hori zorte handia da. Ni ez naiz horrelakoa”. Edonola ere, itxaropen “handiak” ez edukitzea erabaki zuenetik, osoago bizi dela dio: “Euskal Herri askatua? Nik ez dut ezagutuko. Euskal Herri Sozialista? Ez dut ezagutuko. Euskal Herri Euskalduna? Ezta ere. Are gutxiago ezagutuko dut mundu justu eta ez-biolento bat. Itxaropen horien alde saiatuko naiz, baina nire sufrimendu moralak ez baitie ezertan lagunduko, alferrik ez sufritzea erabaki nuen. Beti ez dut lortzen, baina lasaiago sentitzen naiz. Irtisia naiz azken maldara, eta falta zaidan denbora mundutik deskonexio sentimental batean bizi nahi dut”.

IDEALAK ETA BELDURRAK

Ezin ditu pentsamendua eta sentimendua elkarrengandik bereizi. “Blaise Pascalak badu esaldi ospetsu bat: bihotzak baditu arrazoiak, adimenak ulertzen ez dituenak”. Polita dela dio, baina ez dator bat. “Sentitu, animaliek ere sentitzen dute. Nik ezin dut ezer sentitu pentsatu gabe, eta ezin dut ezer pentsatu sentitu gabe”. Sarri agertzen zaio, ordea, azalpenik aurkitzen ez dion tristura, hormona baten edo batzuen gorabeherak soilik azal dezakeena. “Atzo pozik nintzen, eta gaur, arrazoiak batere aldatu gabe, zergatik nago honela? Kafe bat hartzean,

“ ”

Pena itzela ematen dit marrazten ez jakiteak.

Arte guztiek erakarri naute, baina azkenean, bertsolari gizajo bat izan naiz

zergatik jartzen naiz berriro animoso? Gogorra da irenstea laborategi kimiko bat zarela. Metaforak utzita, pixka bat bipolarra naiz”. Tristuraren eta euforiaren artean dabilzan zikloak izaten ditu, egunaren beraren zikloekin bat datozenak sarri: “Goizetan, normalean, nire konstante animikoak behean daude; gauetan, ordea, ez dut oheratzeko gogorik izaten. Behin Alfonso Sastreri esan nion: ‘Sekula ez dut aurkitu arrazoi konbintzenterik ohetik jaikitzeke’. Harrituta gelditu zen. Ba, egia da. Emozioek, askotan, behar ez





diren tokietaraino eskapatzen dizute. Zerk gida ditzake? Adimenak. Pentsamenduak. Sentitu behar duzu merezi duena, sentigarri dena, ez zerbait kontrolagaitza. Eta hori pentsamenduaren bidez bereizten eta lortzen da, nahiz eta, batzuetan, pentsamendua bera ere erortzen zaidan". Azkenean, beheraldietan, sarritan estatistikari heltzen dio: "Orain arteko beheraldia beti iragankor izan badira, etorriko da berriz ere goraldia".

Izan du beste barne talka bat ere bizitza osoan zehar: beldurraren eta idealen artekoa. "Jendeak uste du ni ausarta eta erradikala naizela, baina gizajo bat naiz barrurantz. Era guztietako beldur korrosiboak etortzen zaizkit. Halako batean lortzen dut haietatik askatzea, zentzugabeak direla ohartzea, eta, orduan, tarteka euforia dator, eta, beste batzuetan, depresioa. Nola egon naiz horrela, motibo gabe? Horretaz ohartzeak berak amiltzen zaitu. Baina idealak ere hor daude. Eta ez dakit zerk eragin izan didan gehiago". Oroitzen ditu bizitzako une asko, eta iruditzen zaio beldurragatik izan ez balitz, askoz urrunago joango zatekeela. Umetan seminariotik alde egiteko gogoia, kartzelako mutinak, bertso saioen aurreko mamuak, ekintza fuerte samarrak, Gernikan Espainiako errege-erreginen aurrean *Eusko Gudariak* kantatu zutenekoa... Beldurrak gain hartzeaz zela dio, guztietan ere. Taldeak eta idealek anparaturik egin du bizitzan aurrera. Ez du egin gabekoen damurik edo kezkarik, halere. "Izatekotan, egin ezin izanaren pena".

ZAHARTZAROA, OINARRIRA ITZULTZEA

Auzi pertsonalak kanporatzea ez zaio sobera gustatzen. "Beti iruditu zait, bizitzako sentimendurik sakonenetan, bakarrik gaudela. Umetan, seminariotik etxerakoan nekarren poz hura nori hasiko naiz kontatzen? Segituan hasiko zaizkizu erantzuten, 'ba nik hau, ba nik bestea'. Entzuleak ezin ditu zure sentimenduak jaso zuk ematen diezun indarrez, eta, hori igartzean, dezepzioa dator. *Emozioak adierazi* esan ohi da, baina ni gehiago naiz gordezalea, sentipen inportanteetan, behintzat. Eta ez kalakarik eman! Hau elkarrizketa bat da, eta zuri nahitaez interesatu behar zaizu nik diodana, baina, bestela, ez dut maite neure barne munduaz mintzatzerik, ez baitago gauza etsigarria-

gorik ezaxolaz entzun zaitzaten baino”.

Zahartzarora oinarritzoranzko itzulerara bat bezala bizi du, bere buruaren lehengaiarekin aurrez aurre jarrarazi duen aldi bat bezala. “Jendarteko zurrunbiloan zabiltzanean, batekin demandan, bestearekin desafioan, sar zaitzake era guztietako eztabaidetan, baina zahartzaroran, zeure baitako kontzientziak bizi zaitu. Ni, orain, batez ere, neure buruarekin bizi naiz. Eta zein ditut sentimendu garrantzitsuenak? Beti izan ditudanak. Haurtzarotik datozenak”. Bakartuago egonagatik, banitateak bere horretan irauten duela dio. Liburuko esaldi bat da: “Adinak ez du banitaterik txikitzen, bai umiliatzen”. Eta arrazoitzen du: “Burua pixka bat joaten hasten bazaizu, agian banitatea ere txikituko zaizu, baina, bestela, zure nortasunaren nahia ez da txikitzen. Banitateak ez du esplikaziorik, hor jarraitzen du. Egin dezakezun bakarra da ez dakizula igarri. Edo apaltasun itxura bat eman. Nik ez dut faltseria hori nahi”.

Orain, denbora nola edo hala betetzea du kezka nagusi: “Denbora hutsa zulo beltza da. Egunari eskatzen diot hutsik ez etortzea. Zereginik gabe, telebista-koprograma inozo bat ikusi beharrean

“ ”

Bititza zuhaitz bat bezala da. Bazoaz adar batean aurrera, baina laster amaitzen da bidea. Erori nahi ez baduzu, berriro enborrera zatoz. Gorantz ere nahiko igoera mugatua daukazu

aurkitzeak beldurra ematen dit”. Gehienetan izaten du zertan jarduna, ordea. Etxe inguruko lanetan, ia egunero, eta idazten ere bai. “Bizitzari aurre egiteko atsegina ematen dit idazketak. Iruditzen zaizunean zerbait ondo adierazi duzula, zeure sentimenduei edo pentsamenduei halako definizio on bat ematen diezula, horrek izugarri betetzen zaitu”. Gehie-

gizko denborari aurre egitetik ohiturak salbatzen du. “Ohiturak izen txarra dauka, baina ohiturazko animaliak gara. Dohatsua ohitura, zeinari esker beti dakigun zer egin. Mahaian toki batean eseri, taberna jakin batean sartu, halako toki batetik pasatu... Gatazkatsu bihurtzen ez den bitartean, segi horretan. Ohiturak senari jarraitzen dio”.


Zorteko sentitzen da 82 urterekin osasunez ondo delako, baina ez daki egungo bizimoduari noiz arte eutsi ahal izango dion. Bien bitartean, lagunarteak ematen dio poz batez ere, baita ondo dagoela sentitze hutsak ere. “Heriotzarako prestatu behar dela entzuten dut zenbaitetan. Prestatu? Hori etorriko da prestatu gabe ere. Gainera, heriotza dohatsua izango dudala uste dut, pena amaituen poza handiago izango baita poz utzien pena baino”. Eta *Euskal Utopikoei Saria* izenekoak bildu baikaitu elkarrizketa honetan, kontzeptu horrekin lotutako azken esaldi bat berreskuratu du, epilogo modura: “Zorion handia da izatea hiri batekoa, zeina ez baitzuen ezein konkistarik fundatu, ezein monarkak saritu, ezein enperadorek nominatu. Hiri hori ez da existitzen, baina hangoa naiz”. ●

NAFARROAKO VIII AZOKA EKOLOGIKOA

Irailak 15, 16 eta 17
Zentzumenen Parkea
(Noain)

Elikagai ekologikoen
merkatua, gastronomia
espazioa, jarduerak,
haurrentzako espazioa...
Eta askoz gehiago!

EL FUTURO
ES ECOLÓGICO
aurrera goaz!





LIBURUA

Oreaktor



DESBERDINEN KLUBA

GIDOIA: Catia Baur

ILUSTRAZIOAK:

Christophe Bouchard

ITZULPENA: Miren Agur Meabe

TTARTTALO, 2021

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Ikasturtea amaitu eta udarako irakurketak aukeratu nituenean ez nuen liburua hau hartu. Josune Muñozek luzatu zidan, esanaz bezala: "Egidazan kasu, gustatuko zaizu". Gustatu zait eta udako oporraldia amaitzeko aproposa iruditu zait, gainera.

Komikiari hasiera emateko autoreak aukeratu duen anekdota ez nuke original gisa izendatuko. *Lixto! Hasi da ikasturtea... Pentsatzea ere... Aurten ez nago gela berean, lagunekin.* Baina ohiko kezka izanagatik proposatuko digun errelatua irakurtzen segitzeko gooa uzten digu.


Izenburuak dioskun bezala desberdinak diren laukote batek osatzen du Desberdinen kluba. Harro egoteko moduko ezaugarri bereziak dituzte pertsonaiek, eta honek bakar egiten du gure

liburuko pertsonaia bakoitza. Besteek, ordea, deitoragarritzat dituzte eta erreko ikasturtean mespretxuz tratatu dituztenez hori errepikatuko den beldur dira. Beraietako bat jipoitu egiten dute nahiko hasieran, eta injustizia horren aurrean biktimak hartzen duen jarrera mendekatiari eta horrek sortzen duen kulpasentsazioari buruzko hausnarketa bat da liburua. Interesgarria iruditu zait oso, pertsonaiak ez biktimizatzeke autoreak egiten duen ahalegina.

Irudi aldetik oso aberatsa da komikia. Alde batetik, orri konposaketa desberdinak aurkituko ditugu: hiru bineta luzekin dituen, sei binetaduna, hiru bineta itxi eta hiru ireki dituen seiko orrialdea, orri osoa hartuko duen binetarik gabeko irudia, bostekoa, bineta bertikalak

dituenen bat edota bineta borobil bat. Bineta irekiek arnas handia ematen diote liburuari eta oso iradokitzaileak direla esango nuke, aproposak, ondo aukeratuak eta burutuak. Trazua garbia eta fina da; erraz jarraitzen da irudiek kontatu nahi digutena. Eta koloreen aldetik, gama handia erabili du koloretzatzaileak; matizez betea, oso bizia eta erakargarria.

Izenburu horrekin (*Desberdinen kluba*) eta eskola giroko kokapenarekin haurrentzako liburu baten aurrean gaudela pentsa genezake. Ikasturte hasierak, baina, askori eragiten digu urduritasuna, nagia, beldurra. Agian ez duzu zerbait burutsua irakurtzeko gorputzaldirik izango. Liburu hau erraz irakur dezakezu. Baina emango dizu zer pentsatua. ●



MUSIKA

Mutterrek ez du inoiz huts egiten



DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA

ARTISTAK: Anne-Sophie Mutter (biolina eta zuzendaritza) & Mutter's Virtuosi.

EGITARAUA: Vivaldi, Bach, Prokofiev eta Bologneren lanak.

LEKUA ETA DATA: Kursaal Auditorioan, abuztuaren 26an.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR KURSAAL

Ane Sophie Mutter oso zaharra ez izan arren, jada mitikoa egiten zaigun artista horietako bat da. Izan ere, 13 urte besterik ez zituela egin zen ezagun, Karajanek babestu eta Berlin-go Filarmonikoarekin jotzera gonbidatu zuenean. 50 urte baino gehiago igaro dira, eta andre honen ospea hazi besterik ez da egin. Benetan, Karajanek ezaugarri bikainak hauteman zizkion, bai teknikoak, bai musikaltasunekoak. Gainera, kalitatean oinarritutako karrera sendoa eramaten jakin du. Esandakoa, musika-ren mitoa da.

Eta, gainera, mito eskuzabala, jakinduria banatu eta bere protagonismoa sokaren talentu gazteekin partekatzen dituen. Gazte hauek, Mutter's Virtuosi izeneko taldekoak, lagun izan zituen Musika Hamabostaldiko kontzertu honetan.

Kontzertua, barrokoaren eta musika garaikidearen artean ibili zen. Ederta-

sun diskretuko kontzertua, Kursaalera publikoak estimatzen jakin zuena, zalan-tzarik gabe.

Hasteko, Vivaldiren *Fa maiorreko kontzertua*, hiru biolinrentzako *RV 551* oparitu zuten. Anne-Sophie Mutter eta beste bi biolin bakarlari, Agata Szycowska eta Samuel Nebyu, bikain aritu ziren gainerako taldekideekin. Soinu garbia, purua, eta manierismorik eta gehiegikeriarik gabeko fraseaketa izan zen obra honen tonika orokorra.

Ondoren, bakarlari gisa, Mutterrek Bachen *Biolinarako kontzertua BWV 1041* eskaini zuen. Biolin jotzaileak eskaintzen duen soinu garden eta izugarri afinatuaz gain, aipagarriena taldearekiko fusio perfektua izan zen.

Lehenengo zatia amaitzeko, denboran zehar bidaia bat egin eta *Nonet* eskaini zuten, André Prokofiev Mutterren senarra izan zen orkestra-zuzendari

zenaren obra. Lan hau, hain zuzen ere, Mutter's Virtuosi taldearentzat konposatu zen 2014an. Oso ederra da eta Shostakovitch-en ukituak ditu, batez ere bigarren zati ilunean. Interpretazioa bikaina izan zen.

Kontzertuaren bigarren zatian *Brandenburgoko Kontzertua sol maiorrekoa BWV 1048* jo zuten, kemenez bete, eta Joseph Bologneren lan ez oso ezaguna, *Biolinarako Kontzertua la maiorrekoa op.5 2.*, non Mutterren ezaugarriak antzeman ahal izan genituen: teknika ikusgarria, soinu magnetikoa, eta, batez ere, pasioa eta sinpletasuna.

Entzuleek taldea txalotu zuten, are gehiago hiru bisen ondoren: John Williamsen *The Long Goodbye* filmaren soinu-banda, Vivaldiren Lau Urtaroen *Uda*-ren pasarte bat, eta John Williamsen *Schindlerren Zerrenda*. Benetako gozokiak. ●



Testamentu berria

AMETS ARANGUREN  MARTXEL ZUBIA

Beti iruditu izan zait *gure* Disneyland txikia dela Bilboko Areatza Aste Nagusian, oraindik gogoan dut 16 urte bete berritan lehen aldiz hara eskapatu ginenean flipatu nuena (eta errotonda batean lo egin izana). Mini hiri bat (nireztat) hiri handi baten barruan astebetetz. Euskal Herriko hiriburuetako jaietan onenak.

Nafarroa Garaian ohituak gaudenaren kontrara, lotara joateko orduro garrario publikoa hartzeko aukera izateak larritasuna kendu dio euri iragarpenari. Trenetik atera eta kaputxa denak burura. Ezagun batzuek kontzertua dute 21:30ean eta topatu dugu leku erdi-babestu bat Arriaga Antzokiko arkupeetako baten azpian. Gu-euri gortina-Aska-peña konpartsa.

Eneko, Beñat (Malakias ere badena) eta Iker gazte durangarrek osatzen dute Katu, oker ez banago aurretik Parkatu izandakoaren bilakaera (aldaketa

batzuekin). Gitarra, baxua, bateria eta ahots autotuneatuak. Gure ondotik pasa da Eneko kontzertuaren aurretik eta pozik agurtu gaitu lau metro karratuko oholtzara igo aurretik. Karpa goraino eta ni prest boligrafoa eta EHUKo koaderno bat eskutan, nire lagun Asierrek esanen lukeen bezala, ohartxoa ematen (*dando la nota*).

Momentu honetan Euskal Herriko talde top direnen pandillara sartu dira hauek ere zuzenekoetan: ni bezalako *tikismikis* batendako letrak ulertzeko justiko. Baina ikusten duzu aho txikiarekin hitz solteak botatzen ari zaretenen ondoan badela ere jende bat tope kantuan, beraz, igual arazoa ez da taldearena. [Hemen ahalko banu jarriko nuke bakarrik burua ikusten zaion txakurtxo txiki baten *stickerra*].

Dituztenak sareetan-eta nahiko presente dauden arren, oraindik ez dute kantatu propio askorik eta bertsio batzuk

KATU

Bilboko Areatzan, Aste Nagusian (abuztuaren 25ean).


prestatu dituzte zuzenekoetarako. Beti izaten da buruhaustea bertsionatzeko kantuak hautatzea eta, egia esan, hauen konboa ez nuen espero. Ez dizkizuet aurrreratuko, baina hautaketa kuriosoa da (eta graziosoa).

Talde hasiberri askori ez bezala, hauei entzun dakizkie haien kantuetan joera batzuk, taldearen bereizgarri izaten direnak gerora: izan armonien segidari edota melodietan interbalo zehatz batzuk jarraian jartzeari dagokionez. Ez da batere erraza izaten hori (hain azkar) edukitzea eta hauek badute.

Kontzertua hurbilgotik ikusteko eta *dress codea* hitzarturikoaren ondorio ala modaren kasualitate izan den jakiteko gogoz geratu naiz. Hurrengo kontzertua fitxatua dut. Jaio eta gutxira kantatu du *Testamentue* Katuk, baina beste sei falta zaizkio, beraz, bitartean, nola ez egin kasu Oskorriren bertsio bat kantatzen duen talde bati. ●



Hitz gezidunak

ARRETAZ ... TOPO, AURREZ AURRE	ARRAIN MOTA ...ITALIAKO IBAI NAGUSIA	DUDARIK GABE	 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA		ERREGELA, NORMA ...GUZTIEI DAGOKIONA	ARTZEKO AUZO, NAFARROA ONDU	IRAKINALDI ...ITSAS OSKOLDUN
ZEINI NANOTESLA					PERTSO- NAIAREN IZENA PALAKADA		
	RUTENIOA EULI MANDO		MAIZ, SARRITAN UR KORRON- TE NATURALA	UZKERRAK SETATSU			
UMOREA LANTZEN DUENA GABEZIAK					DONARI, GOLARDO ...HATZ ESTALKI		
		BIRA, JIRA PERTSO- NAIAREN ABIZENA				RADONA ONURA	
OILOAREN FAMILIAKO HEGAZTI	ZELAN LASAIA		LAZTANA, KUTTUNA ALTUA				URDURIA
					FITSIK, DEUS EZ ...OINAREN ATZEALDE		
AUTONOMI ESTATU ETXE BATEK HARTZEN DUEN LUR		URRATSA ARABIAZ IZENETAN, SEME-ALABA				NIRE AREAGO	
			ORDAINTZE- KO BETEBE- HARRAK ESTRONTZIOA				10 ERRO- MATAR ZENBAKIZ ...INFUSIO MOTA
BIHURGUNE ITXIA ENPARAU				TEKNIKO KILOA			
					NIREA		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		1		3			5	
4					1			
5			6		7			4
3	9				5	1	8	
		4		1		3		7
1	7	6	3			2	4	5
	3				8	5		1
		8	9	5		4	7	3
				7		9		8

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Hortz.
- Eskumena, boterea.
- Arloak.
- Errenkada, lerro.
- Moluskuen maskorreko barne geruza.

EBAZPENAK

- HAGIN
- AHALA
- GAIAK
- ILARA
- NAKAR

8	9	6	3	7	5	1	2	4
6	1	8	5	2	4	7	3	9
7	3	6	4	8	5	2	1	9
1	7	6	3	8	6	9	2	4
8	5	4	2	1	6	3	9	7
3	9	2	7	4	5	1	8	6
5	2	3	6	9	7	8	1	4
4	8	7	5	2	1	6	3	9
9	6	1	8	3	4	7	5	2

E	N	E	O	K	A	R	E	N	I	V	G
E	N	E	P	E	S	E	P	E	L	E	
X			R	A	K	Z		B	E	O	
E			A	O	S	O		P	A	V	
K			T	O	L	O		I	O	I	
A			V	A	M	A		L	O	N	
N			L	T	A	B		U	E	V	
I			S	A	R	I		S	O	R	
A			Z	A	V	A		R	I	U	
V			T	U	P	U		R	U	T	
A			N	V				I	R	O	
O			R	O	O			Z	O	P	
I			E	A				K		K	

Nahia Alkorta Elezgarai

SABELETIK MUNDURA



LOZORROKO HARRA

Injustizien aurrean harra lozorrotik esnatzen zaio Alkortari; ezinegona. Hamaika urte daramatza barruko harra ezin ase. Inork inoiz itzuliko ez dion zerbait ebatzi izan diotenaren sentazioarekin bizi da. Osasun mentalaz galdetu eta “ezinbestekoa” erantzuten du zirt-zart. “Ez da txantxa. Arinkeria handiarekin jarri ohi da hitza mahaiaren gainean”. Erditzeak emakumearengan eragin dezakeenez hitz eginen du kaleratuko duen liburuan. Amatasunaz asko hitz egiten den aro honetan, bere ekarpena erditzetik egin nahi izan du oraingoan.

“Indarkeria obstetrikoa aitortu zaigun lehen emakumeak gara munduan”

“Oinarrizko eskubideak aitortzeko egiten dut. Niri ez dit inork nire erditzea itzuliko, ezta bizitutako trauma hori sendatuko ere. Beraz, ondorengoei halakorik ez gertatzeko ari naiz lanean”. Hitz gordinak dira, minetik eginak, eta min horretatik abiatu, gertaturikoa plazaratzeko, indarkeria obstetrikoa jasan izanaren esperientzia liburu batean bildu du Nahia Alkorta Elezgarai donostiarrak. Hamaika urte dira bere lehen haurraz erditu zela, eta prozesu judizial luze batean dago geroztik, Nazio Batuen Erakundearen Diskriminazio Batzordeak arrazoia eman zain, Espainiako Estatuak “ebazpena ez errespetatzea” erabaki zuelako.

 **AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ**  **DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA**

Indarkeria obstetrikoko egin zaitu ospetsu.

Bai, zoritxarrez. Urte askoren ostean, Nazio Batuen Erakundeak arrazoia eman dit. Sabeletik Mundura egitasmoak ere eman dit hauspoa eta bide bat urratzen hasteko aukera. Ezaguna egin naiz egin zidatenagatik, nik neuk sorturikoagatik baino.

Zer gertatu zitzaizun?

Nire lehen haurraz erietxe publiko batean erditu nintzen. Izango zen presagatik, baliabide eskasiagatik, egiturazko indarkeria delako... Egon nahi ez nuen interbentzioetan ikusi nuen nire burua une batetik bestera. Indukzio bat egin zidaten, ezezkoa esan nien arren. Azkenean, zesarea egin zidaten, mediku ikuspegitik beharrik egon ez arren. Mehatxu

egin zidaten, horretara behartu. “Erietxera bazatuz guk esaten duguna egin behar duzu”, esan zidaten. Trauma osteko estresa eragin zidan horrek, eta oso urte txarrak pasa nituen. Psikologikoki oso jota nengoan.

Lehen salaketa jartzeko urte bateko epea dago soilik. Gertatu zitzaidanari hitzak jarri orduko, kemena batu eta salaketa jarri nuen. Egin zidatena aitor zezaten nahi nuen. “Zuk horrela bizi izan baduzu, zerbait gaizki egin dugu”, horixe entzun nahi nuen, besterik ez. Hamaika urte betetzera doa haurra eta oraindik ez dut halakorik aditu. Donostiako epaitegian izan nuen lehen epaiketa, salaketa jarri eta hiru urtera.

Nola gogoratzen duzu?

Epaileak honela esan zidan: “Zu zara

Nahia? Familian sendagile asko ditut". Horrekin, jada, imajina dezakezu nola joan ziren ondorengo minutuak.

Ni ez noa medikuen kontra, indarkeria matxistaren beste adierazpen bat besterik ez den indarkeria obstetrikoren kontra baizik. Espainiako Estatuko aukera denak amaitu eta Nazio Batuen Erakundeko Emakumearen Diskriminazio Batzordera jo genuen Espainiako Estatuko hiru emakumek eta nik. Joan den uztailan jaso nuen arrazoia eman didan ebazpena. Indarkeria obstetrikoa aitortzen zaigun lehenak gara mundu mailan.

Geroztik, ordea, lehenago lepotik burua.

Sei hilabeteko epea izan dute epaia betetzeko, baina ez dute egin. Nire kasuan, Eusko Jaurlaritzak ebazpena ukatu zidan eta beraiek "bikaintasunaren pean" lan egiten dutela esan zuten prentsa ohar batean. Orain, urrats administratiiboak berrabiarazi eta Espainiako Auzitegi Nazionalera jo beharrean nago, eta horrek esan nahi du beste hiru edo lau urtez luzatuko dela prozesua.

Dena hankaz gora gelditu daiteke, minaren aitortza ez egitetik harago?

Kostu emozional eta psikologikoa izatetik harago, kostu ekonomiko handia ere badu. Betearazteko bidean kondena handia jaso dezakegu epaiketaren kostuetan galduz gero. Eta are larriagoa dena: jurisprudentzia oso arriskutsua dago jokoan. Azken batean, emakumeon hitzaren gainetik osasun sistema gailentzen bada, berdin segituko dute, babes judizialarekin gainera. Hiru erditzetik bat erditze traumatikoa izan ohi da; indarkeria obstetrikoa dago hemen.

Amatasunaz asko hitz egiten da; erditzeaz eta eraginaz, apenas.

Erditzea oso momentu berezia da emakumearentzat, psikologikoki eta neurologikoki. Garunean aldaketak gertatzen dira oso denbora gutxian. Kultura batzuetan trantsizio bezala kontsideratuta dago, baina gaur egun jada badakigu ez dela kontu kulturala, baizik eta beraiazko gertaera bat.

Horri, noski, haurra gehitu behar zaio, ahantzi gabe. Jaiotzeko moduak bere bizitza osoan eragina izanen du, eta haurra indarkeria giroan jaiotzen bada, zer esanik ez, eragina ezkorra izanen da. Bestalde, gainera, nire ustez indarkeria obstetrikoez baino, indarkeria



"Ni ez noa medikuen kontra, indarkeria matxistaren beste adierazpen bat besterik ez den indarkeria obstetrikoren kontra baizik".

gineko-obstetrikoez hitz egin beharko genuke. Emakumeon gorputza jartzen da guda zelai. Biluzik gaude, eserita, hankak zabalik eta askotan ez dakigu zer gertatzen den ere. Dermatologoan, adibidez, ez da halakorik gertatzen.

Udazkenean kaleratuko den liburu batean bildu duzu guztia.

Nire bizipenak dira. Erditzea, erditze otea, prozesu judiziala eta horren ondorioak. Iruñean Sanferminak ospatzen ari ginela jaso nuen NBERen ebazpena eta

berehala pentsatu nuen liburuaren ariketa egitea. Bide orri bat egin nahi izan dut, inor nire lekuan aurkituz gero, zer egin dezakeen jakiteko. Azken batean, arrazoia ukan arren, sistemaren kontra joatea delako, eta hori beti da zaila.

Sei hilabeteko epean idatzi dut, uste baino errazagoa izan da. Ongi pasa dut sorkuntza prozesuan eta hori balioan jarri nahi dut. Minetik idatzi izan banu, unea ez zenaren seinale. Berrirakurketan aseturik sentitu naiz, ez naiz puskatu. ●

Abuztuaren 31koak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Joan den astean 210 urte bete ziren tropa anglo-portugalдарrek Donostia erre, arpilatu, hiriko emakume gehienak bortxatu eta kiskalitako kaleak gorpuz bete zituztenetik. Eta Parte Zaharrean, 1813ko sarraski krudela ospatzeko –bai, ospakizuna zirudien–, XIX. mendeko soldaduz jantzita bataila baten simulakroa antzertu zuten zenbait seniorrek. Danborrak ere jo zituzten noski, izan ere, urtarrilaren 20an “gubetipozez!” asko, baina San Sebastian eguna pasata abstinenzia-sindromea latza izaten da, nolabait igaro behar emozio joxemaritar fuerterik gabeko hilabete tristeak; eta koxkerina gogorraren faltan, edozein suzedaneo da on, nahiz eta abuztuaren 31ko supositorioa ez den burura igotzen “betialai!” aldarri egiteko adina.

Soldadutxoek kontu horrek, nola ez ba, kritika ugari eragin du Donostiako indar bizien artean. Kritika beharrezkoak, sarraski hartan dena galdu zutenen memoriak merezi duelako eztabaida serio bat, kalera Barry Lyndon bat eginda atera aurretik. Hori bai, dena esaten hasita, iruditu zait gure prentsan errun diren iritzi disidente batzuek karrakelak eta izkirak, denak nahasian atera dizkigutela, gertakari historikoei esplikazio borobilak eman nahian, ai, molde karratuak erabiliz. Zirkulua laukitu beharrene emaitza, esaldi hau: “Gernikan 124 urte beranduago bezala, Espainiaren mendekua esplikatzeko Donostiako sarraskia 1813an”.

Intentzioa ona izango da, ez dut ukatuko, baina historiari begiratzeko modu horrek ondorio terribleak ditu, iragandako guztia gaur egungo identitate politikoen arabera berrasmutzen duelako, mende desberdinetako gertakizunak zaku berean nahasi, eta pelikula osoa zintzo eta gaiztoen istorio txar bat bihurtu, zeinean “gu” –euskaldunak– beti izan



garen mantxarrik gabeko aingeruak eta “besteak” –espainiarrak– beti infernuko etsai berak, gaitz guztien errudun. Den-den-dena sarrarazi daiteke dikotomia horretan gainera. Helburua gauzaren bat benetan konprenitzea bada, ordea, gimnasia gehixeago exijitu behar izaten zaio kaskezur barruko giharrari –1813koaren kasuan, Frantzeztadaren ur zingiratsuetan gerriraino gutxienez murgildu behar da, Xose Estevezen “Sitio, asalto, saqueo e incendio de Donostia. Julio-septiembre, 1813” artikulua irakurriz, adibidez–.

Gainera –behin hasita, zertarako gelditu– soldadutxo-jolasen kritika horiei erosotasunaren urrin bat ere hartzen diet. Azken finean, duela bi mendeko sarraskiak ez du utzi zornatutako zauririk gaurko Donostian bizi direnen artean. Erraz sartzen ahal da hatza hor. Ez da gauza bera gertatzen Parte Zaharrean ez hain aspaldi ikusitako beste espektakulu tamalgarri batzuek memorian utzitako urradurekin. Lagun liburu-dendari Pla-

za Berrian zegoenean egin zizkioten pintaketak, molotov koktel bidezko erasoak eta liburu-erreketa datozkit gogora, baita jabeetako baten senarrak jasandako atentatua ere.

Abuztuaren 31n itxi dute erdigunera eraman behar izan zuten negozioa –galera handia: nekez irekiko da hirian berriro horrelako funtsik daukan liburu-dendarik–, baina Euskal Herria ziklo politiko berrian™ sartu zenetik hamabi urte pasa diren arren, gogorkeriaren gairako kontu haiek garbitu gabe amaitu da Lagunen ibilbidea. Gaur egungo Donostiaren historia zati txiki bat hobera ko aldatzeko aukera galdu dela iruditu zait, nahiko konbentzituta bainago liburu-denda jazartzeko egindako astakeria haiek erreparazio sinbolikoa eskatzen zutela, aitortza hori mesedegarria izango zela kalteen egiletza onartzen zuenarentzat ere eta, dudarik gabe, ekintza erradikalagoa izango zela hori Napoleondar Gerren memoriarekin lotutako ezer baino. ●

OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza
ipuin-kontalari trebeenen
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta
batez ere, disfrutatzeko eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

CLIMA IDEAL

UDAKO KARTELAK ERAKUSKETA

2023.07.01–2023.10.15

SAN TELMO
MUSEOA



© Rafael Penagos, VEGAP, Donostia / San Sebastián, 2023

Estudio Lanzagorta

ANTOLATZAILEAK

STM
San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DX

donostia
kultura

ERAKUNDE BARESLEAK

